ttipi-ttapa

DONEZTEBEKO FERIAK / 21

Mikel NIEVE | Leitzako txirrindularia

«AMETSA EGIA BIHURTUTA PRIBILEGIATUA SENTITZEN NAIZ»

Orain arteko ibilbidearen errepasoa egin du TTIPI-TTAPArekin. / 8

MARCO ALPOZZI / LAPRESSE

Herri euskaldunak 'Arnasa Gara'

Euskararen arnasguneetako herritarrek euskararen ongizatean duten garrantziaz jabetzeko 'Arnasa Gara' ekimena hasi dute. / 10

SINADURAK

MONIKA AGIRRE CASCALLANA / **3**

AITOR AROTZENA ALBIZU / **3**

NEREA ZABALETA LASARTE / **4**

MIXEL GEREKA ZELAIA / **4**

ZOZKETA / 56

Baserritarren Egunaren XXIV. edizioa azaroaren 1ean Arantzan / 17

Azaroaren 8an hasita lau egunez besta giroa nagusituko da Aurtitzen / 26

Azaroaren 3an jubilatuen eguna ospatuko dute Goizuetan / 30



Txapeldunetan txapeldun izendatu dute Kortariko gasna Ordizian / 37

berako agenda .eus

Azaroa

berako agenda

BERAKOUDALA

berako kultur batzordea

ARGAZKI ERAKUSKETA
PLAKETAK (AITZIBER ORKOLAGA)
Urriaren 26tik abenduaren 29ra
16:00-20:00 Altzateko ikastolaren areto nagusian
Larunbat eta igandeetan
Antolatzailea Labiaga ikastola

XXI. BERAKO KAFE ANTZERKI ZIKLOA 2019

10 IGANDEA | **Tabernaria** (Tartean Teatroa)
Bi pase emanen dira:
18:00etan eta **19:00**etan
Iraupena: 30 min
Kataku ostatuan

17 IGANDEA | **Manifestu bat** (Beheko Larraine)
18:00 Bidaxka Ostatuan

24 IGANDEA | **Bakean dagoenari bakean utzi!** (Lanku)
18:00 Goxune kafetegian

Antolatzailea: Berako Euskara Batzordea
Laguntzaileak: Bortzirietako Euskara Mankomunitatea eta Berako Kultur Batzordea

ROBOTIKA IKASTARO LANTEGIA
SAREAN EUSKARAZ
Data Azaroaren 7 eta 14an
17:00-20:00 Beralandetan
Hiru orduko bi saio
Doako ikastaroa
Izen-ematea www.sareaneuskaraz.eus
Antolatzailea Nafarroako Gobernua eta Euskarabidea

02 LARUNBATA | EMAKUME MASTER CUP
4 1/2 ESKUZ BANAKAKO SAILKAPEN PARTIDAK

17:00 Eztegara pilotalekuan
Argibide gehiago www.emakumemastercup.eus

06 ASTEAZKENA | SOLASLAGUNAREN AURKEZPEN BERENDUA
19:00 Beralandetan
Antolatzailea Bortzirietako Euskara Mankomunitatea

09 LARUNBATA | BERTAKO EKOIZLEEN MERKATUA
10:00-13:30 Ricardo Baroja eskolako arkupeetan

09 LARUNBATA | KONTZERTUA ETA DISKO AURKEZPENA
HAIZE GORRI BATEK (ESTITXU)
19:00 Kultur etxean
Sarrera 6 €
Iraupena: 90min

18 ASTELEHENA | SANTA SEZILIA KONTZERTUA
18:00 Musika eskolan
Joan den ikasturtean solfeoko 2. maila bukatu zuten ikasleei diplomen banaketa
Antolatzailea: Isidoro Fagoaga Udal Musika eskola

2019
BERAKO XXI. KAFE ANTZERKI ZIKLOA

ANTOLATZAILEAK eta LAGUNTZAILEAK

AZAROAK 10, IGANDEA
TARTEAN TEATROA:
TABERNARIA.
Instrukzioak botatzeko ondo bat kaña
ORDUA: 18:00 / 19:00*
LEKUA: Kataku ostatua.
*Bi pase emanen dira, bakoitzak 30' irauten du.

AZAROAK 17, IGANDEA
BEHEKO LARRAINE TALDEA:
MANIFESTU BAT
ORDUA: 18:00
LEKUA: Bidaxka ostatua.

AZAROAK 24, IGANDEA
IDOIA TORREGARAI & MIRARI MARTIARENA:
BAKEAN DAGOENARI BAKEAN UTZI
ORDUA: 18:00
LEKUA: Goxune kafetegia.

NIRE TXANDA

MONIKA AGIRRE CASCALLANA

Udazkeneko sekretuak

Ai, onddoak! Udazkenak oparitzen dituen loreetan, segur aski, preziatuenak. Zenbat plazer ekartzen dizkiguten: lehenbizikoa, basora bila joatea. Ondotik, kitzikagarriena; baten bat aurkitzea (eta, ahal bada, saskia betetzea). Eta azken gozamena, nola ez, harrapatutakoa jatea; ze onak! Baina laugarren plazer ezkutu bat ere ematen digu *Fungi* erreinuak, jan aitzinetik egin beharrekoa: aurkikuntza lau haizetara zabaldu; harropuztu, alegia. Izan ere, nork ez du inoiz bere harrapaketaren emaitzak harroki mugikorraren kamerarekin enfokatu, klik egin eta lagunei bidali?

«LAUGARREN PLAZER EZKUTU BAT ERE EMATEN DIGU ONDDOAK»

Iduritzen zait, aipatutako plazeren zerrendan, gero eta garrantzi handiagoa duela argazkiaren difusioak, eta, batzuetan, zalantzak izaten ditut: ailegatzen zaizkigun lagun eta ezagunen bilketaren frogak egiazkoak ote dira? Edo baten batek deus aurkitu ez, eta bertze urte batzuetako argazkiak berrerabiliko ditu? Hori, onddo-lekuen antzera, sekretua da.

EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Urrian ez gabiltza urri

Udazkeneko feriak eta azokak nonahi, jubilatuak urrezko ezteien ospakizutenan, herri euskaldunetan arnasa hartzen, amatxien etxebizitzetatik *okupak* aterarazteko oihuka, Franco airean eta berriz lurpean, kataluniarrak sutan, kurduak noraezean, Ekuadorren borrokan, Txilen pelean… Nondik hasi, dagoeneko bukatu baldin badugu?

NABARMENTZEKOAK

XABIER GARTZIA AZPIROTZ
LEITZA

Xabier Gartzia Azpirotz, 18 urteko leitzarra, izanen da Nafarroako Gazte Parlamentuko presidentea 2019-2020 ikasturtean. Lau hautagaien artean bozkatuena izan da Gartzia.

MAIKA ARIZTEGI MARIEZKURRENA
ITUREN

5Kirol emakumeen pentatloian parte hartu du iturendarrak. Txapela lortu ez bazuen ere, Virginia Finolekin bikotea osatuz emozioz beteriko saioa eskaini zuten bizkaitarren aurka.

ATZERA BEGIRA

2009-11-01 · TTIPI-TTAPA · 505 zk.

Bi txapeldunen hirugarren hitzordua

Duela hamar urte elkarren aurkako hirugarren apustua jokatu zuten Donato Larretxeak eta Miel Mindegiak eta horren atarian, ordura arteko ibilbidea eta hainbat kontu izan zituzten hizpide Ttipi-Ttaparekin. Apustuzaleak zirela aitortu zuten: Larretxeak apustuetan «gehiago» eman izan duela aipatu zuen: «txapelketetan ez dut nire maila erakusten asmatu». Mindegiak, berriz, «aizkolariaren maila apustuetan neurtzen dela» adierazi zuen, «lan luzeak izaten dira eta aizkolariak probatzeko onenak dira». Bat bertzeari buruz ere aritu ziren: Ezkurrakoak Larretxea «betitik aizkolari handia eta konpletoa» izan dela azaldu zuen, eta Mindegiari buruz honela solastatu zen aranztarra: «inork ez bezala egiten dio bere buruari gogor».

ttipi-ttapa
erran.eus
TOKIKOM

Argitaratzailea
Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea
Nerea Bazterrika
Eneritz Iraola
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Usoa Vicente
Berriemaileak
Arkaitz Mindegia, Josebiñe Agirre, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Irune Elizagoien, Maider Petrirena, Oihana Kalparsoro, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Iñigo Imaz, Marga Erdozain, Maitane Maritorena, Arantxa Iturralde, Arantxa Gamio, Jaione Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea Mortalena, Virginia Oteiza, Pierre Bastres, Ainhoa Asitz, Itxaso Arizmendi, Xabier Maritorena, Maialen Iantzi, Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea
Pello Apezetxea
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia

Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Malerrekako Zerbitzuen Mankom., Zugarramurdiko Akelarre elkartea

2019ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	38€
Leitza	26€
Hego Euskal Herria	44€
Ipar Euskal Herria, Europa	83€
Amerika eta Australia	130€

Nafarroako Gobernua · Gobierno de Navarra
mecna
Baztango euskara zerbitzua
Bortzirietako Euskara Mankomunitatea
Malerrekako Mankomunitatea
CC BY SA

KOLABORAZIOAK

NEREA ZABALETA LASARTE

Gaixotasun arraroak: arraroak edo ikusezinak?

Askotan entzun dugu gaixotasun arraroen inguruan; denok dakigu ez direla ohikoak eta ia ezinezkoa iruditzen zaigu gure inguruko norbaitek gaixotasun horietako bat izatea. Arlo askotan bezala, pentsatzen duguna desinformazioaren ondorioa da: gaixotasun arraroak arraro dira, bai, baina Europan 30 miloi pertsonek pairatzen dute gaixotasun arraroren bat, hau da, 100etik lau pertsonek. Zenbaki horiek ikusita ez dirudite hain arraroak, ezta?

Gaixotasun arraroak jasaten dituzten pertsonen arazoa ikusezinak direla da. Gaixotasunaren diagnosiak batez beste bost urte behar izaten ditu (askotan hamar urte baino gehiago), eta hori ez balitz nahiko sufrimendu, gaixoen %40ak ez du tratamendurik jasotzen. Familiek odisea bat bizitzen dute egunero: beraien seme-alabei gertatzen zaienaren informaziorik gabe, jakin gabe etorkizunean zer gertatuko den, noiz arte biziko diren, zein bizi-kalitate edukiko duten edota nola egingo dieten aurre gastu guztiei. Etengabeko borrokan bizi dira, ospitale batetik bestera, erantzunik gabe, laguntza moral eta ekonomiko mugatuekin, norbaitek entzunen edo ikusiko ote dituen zain. Suertez, geroz eta fundazio eta elkarte gehiago sortzen ari dira; baina azken finean babeslekua mugatua da.

«KONTZIENTE IZAN ZAITEZ GAIXOTASUN ARRAROEN ERREALITATEAZ»

Pentsa dezagun zein den arazoa eta zein den arazoaren jatorria. Arazoa: ez dago tratamendu egokirik, eta ondorioz, gaixoez ez dira arduratzen. Baina, zein da jatorria? Paziente horientzako tratamendurik ez egotearen atzean, hainbat arrazoiz osatutako kate konplexu bat dago: medikuek ez dakitelako kasu hauek nola kudeatu, ikerlariok ez dugulako nahiko ikerketa egiten, funts publiko eta pribatuek ez dutelako nahiko diru ematen ikerketarako, funts horiek kontrolatzen dituztenek ez dakitelako arazo erreal bat dela, ez dagoelako gaixotasun hauen inguruko ezagutzarik; azken finean, gaixo horiek eta beraien familiak ikusezinak direlako.

Gaiari buruz gehien dakitenen, hau da, mediku eta ikerlarien, erantzukizuna jendeari informazio egokia transmititzea da. Jendarteari informazio hau modu egokian iristeko eta gai hauei buruz hitz egiteko lan egin beharra dugu. Baina azkenean zure eskuetan dago honen inguruan informatzea; galdetu, ikertu internet bidez, atera kalera eta hitz egin gaixotasun hauek jasaten dituzten familiekin, zure herrian bertan badaude eta. Izan kontziente gaixotasun arraroen inguruko errealitateaz eta kontzientziatu zure ingurukoak. Egin dezagun gai hau biral; ikusezinak ikusgarri bihur ditzagun.

MIXEL GEREKA ZELAIA

A... Altsasukoa

Azken boladan ohe ondoko mesanotxean gaueko bidaide izan dudan liburuaren egileak izan zuen ideia partekatu nahi dut nire estreinalko zutabean. Sue Grafton idazle estatubatuarrak alfabetoko letra bakoitzarekin sinatu ohi zuen nobela beltzeko bere liburu bakoitzeko izenburua. *A is for Alibi* lehendabizikoa eta horrela 'Z' arteko errenkada osatuz. Guztietan Kinsey Milhone emakume detektibea da pertsonaia nagusia eta bere inguruan korapilatzen da misterio eta suspentsez beteriko trama. Estatu Batuetako gizartearen erretratu landua eta egiazkoa eskaintzen du nire ustez, beraz, gomendagarria oso, genero hori atsegin duen irakurlearentzat.

Esan bezala, alfabetoko lehendabizikoa 'A' hizkia Altsasukoa da.

Altsasu bai, baita atsekabea, astakeria eta aldrebeskeria ere. Azpijokoa eta anabasa. Herriko zortzi gazteren eta beraien ama, aita, anai-arreba, amatxi-atautxi, bikotekide eta lagunen bukaezinezko amesgaizto krudelena. Argudio eza, ustelkeria eta zentzugabekeria. Euskal Herri osoko amorrazioa. Espainiako mendeku politikoa eta ustelkeria. Zinismoa eta maltzurkeria, zikinkeria, faltsukeria. Justizia nazkagarria eta itogarria. Francoren biboteak oraindik ere lanean.

«EZIN DUGU ETXEAN GELDITU GUZTIOK ETXEAN EGON ARTE»

Aspaldiko kantak bazion ba…*Anteron txamarrotia, Francoren bibotia, haretxek ei dauka, ei dauka, preso Euskal Herria.*

Eta horrelaxe, *Valledelos-caidos*eko momia gora, momia behera dabiltzan bitartean, bere arima epaitegietan, bizi-bizirik, odol gosea eta gorrotoa dariola. Zorigaitzezko Espainia!

Adur, Oihan, Jokin, Iñaki, Aratz, Jon Ander, Julen eta Ainararen azken epaiketa/zirku mediatiko-politikoaren emaitza jakin ondoren ikusitako irudiak odola bor-bor jartzen didate. Erraiak estutu. Gurasoen inpotentzia, amorru eta desesperazioa. Guraso naizen aldetik argi dut gutako edozein egon gaitezkeela orain beraiek dauden egoeran, Euskal Herriko edozein gazteri tokatzen ahal zaio Altsasukoei tokatutako txartel madarikatua.

Berriro aterako gara kalera Altsasukoekin bat egiteko. Ezin dugu etxean gelditu guztiok etxean egon arte. Berriro aterako gara botoa ematera Franco momiaren arima behingoz suntsitu eta lurperatu arte…

Bitartean, egunak aurrera doaz zurrunbilo berdintsuan, Katalunia eta bere *proces*a, Turkia eta kurduak, *Brexit*a, Mediterraneo itsaso-kanposantua…

Xabier Amurizak idatzi eta Imanolek abesten zuen *Mendian gora haritza* kantak dion moduan: *Kantatu nahi dut bizitza, usteltzen ez bazait hitza, mundua dantzan jarriko nuke Jainkoa banintza!*

A, A, A… Aurrera Altsasu.

Agur *Spain*!

11 GALDERA LABUR

BLANCA BAÑARES CIGANDA DONEZTEBEKO JOSTUNA

«Jostunon lana ez da behar adina estimatzen»

Noiz ikasi zenuen josten?
48 urte nituela hasi nintzen ikasten. Iruñera joan nintzen, hiru urtez –astean bitan bi orduz– akademia batera.

Nolatan eman zenuen izena?
Betitik afizioa izan dut eta egunkarian iragarki bat ikusi nuenean animatu egin nintzen.

Ezpelura emakume taldeak antolatzen dituen joskintza tailerretako irakasle zara. Noiztik?
Tailer hauek eskaintzen borzgarren urtea dut.

Taldeko kide al zara?
Ez, gaur egun ez. Aspaldian, sorrera hartan, hiru urte inguruz izan nintzen. Baina nire lanetik kanpo, etxean eta jostelanak egiten nituen eta taldekideek ezagutzen ninduten, baita nik haiek ere.

Zenbat kide zineten tailerretan hasiera hartan eta zenbat egun?
Gehienez hamar lagun hartzen ditut. Urteren batean bi talde egin genituen, jende asko zegoelako. Aurten 32-70 urte arteko hamar lagun gaude: Iturengoak, Sunbillakoak, Mugairikoak, Legasakoak, Elgorriagakoak... Batzuek lau urte daramatzate nirekin, bertzeak hasiberriak dira. Gure arteko harremana hagitz ona da.

Non eta noiz biltzen zarete?
Astelehenetan 14:50etik 16:30era, Azkarreta etxean.

Zein motatako lanak egiten dituzue?
Norberak bere erritmoa du eta bakoitzak aukeratzen du zer egin: kortinak, kuxinak, jantziak... Neurrira egin nahi dutenei patroiak egiten erakusteko denborarik ez dagoenez, nerorrek egiten dizkiet eta azalpenak emanez, nahi dutena egiten dute.

Zer behar da parte hartzeko?
Gogoa eta arropa, orratza eta haria nahikoak dira. Normalean norberak bere makina ekartzen du baina hemen ere izaten dugu...

Zein da jostun ona izateko sekretua?
Pazientzia eta gustuko izatea.

Nola ikusten duzu joskintzaren etorkizuna?
Gaizki. Batetik, gaur egun gazte gutxiri gustatzen zaio jostea; eta bestetik, egindako lana ez da ez estimatzen, ezta behar bertze ordaintzen ere.

Joskintza ez den afiziorik baduzu?
Kantatzea. Herriko abesbatzako kide naiz, sorreratik. Aurten 25 urte egin dituenez, ospakizun urtea izanen dugu eta ekitaldiak izanen ditugu.

IRAKURLEAK MINTZO

Enpresa hornitzaileek udalei egiten dieten iruzur orokorra

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA LEITZAKO ALKATEA

Herritarrengandik hurbilen dagoen administrazio publikoak, toki-administrazioak hain zuzen ere, herritar horien beharrak eta nahiak asetzen lagunduko duten jarduerak eta zerbitzuak sustatzen eta eskaintzen ditu. Ez dago esan beharrik horretarako ezinbestekoa dela behar adinako aurrekontua edukitzea. Eta aurrekontu hori zergekin osatzen da, besteak beste enpresa hornitzaileei (argindarra, ura, gasa…) kobratzen zaizkien zergekin. Enpresa hornitzaileek espazio publikoak erabiltzen dituzte beren bezeroak hornitzeko. Lurpeko eroanbideak, hoditeriak eta aireko lineak eremu publikoetan barna igarotzen dira, konpainia pribatu horiek baliatu egiten dituzte eta, dagokion araudiak horrela agintzen duenez, lurraren jabea den udalari tasa bat ordaindu behar diote. Udalari ordaindu beharreko tasa hori %1,5ekoa da, eta ehuneko hori enpresa hornitzaile horiek udalerriaren eremuaren barruan lortzen duten fakturazio gordinari aplikatzen zaio.

Fakturazioaren aitorpen horretan iruzur egiten bada, diru hori, herritarren beharrak asetzeko erabili beharrean, multinazional handi batzuen mozkinak gizentzeko erabiliko da. Sinplea bezain bidegabea.

Izan ere, bidegabekeria fiskala ez da soil-soilik gizarte-desberdintasuna murrizten ez duten zerga-tipoak ezartzea: BEZak egiten duena, esate baterako, zerga hori berdin-berdin ordaintzen baitute Botin familiak eta aitonaren pentsioari esker bizi den familia batek. Eta bidegabekeria fiskal hori ez da soilik gizarte-desberdintasunak zuzentzeko gehien duenari gehiago ordainaraziko dioten politika fiskalak ez ezartzea. Horiez gain, zergen aplikazioa ere gogoan izan behar da eta horri ere arreta jarri behar zaio.

Soldatapeko langileok gure errenten azkeneko zentimoa ere oker txikiena egiteko aukerarik gabe aitortu behar izaten dugu. Ez da gauza bera gertatzen, ordea, sozietateen gaineko zergarekin. ELA sindikatuak publikatutako datuek diotenez, Nafarroan enpresen %75ak adierazten du galerak dituela edo irabazirik ez duela. Bai, jakina…

Bada, antzeko zerbait gertatzen da aipatutako %1,5eko tasa horrekin. Enpresa hornitzaileak berak jakinarazten dio udalari tasa hori aplikatzeko erabiltzen den datua, alegia, lortutako fakturazio gordinari buruzko datua. TRACASAren laguntzarekin (Nafarroako Gobernuaren enpresa publikoa) ikuskaritza fiskal bat egin ondoren, ordea, jakin dugu enpresa horietako gehienek aitortutako zenbatekoak benetakoak baino askoz txikiagoak zirela. A zer ustekabea!

Gure udalerrian jardunean ari diren enpresa hornitzaile ia guztiek benetakoak baino kopuru txikiagoak aitortu zituzten, nahiz eta ez duten denek berdin jokatu. Zenbait kasutan aldea ia-ia hutsaren hurrena izan da (beti haien alde). Baina beste zenbaitetan kopuruak larritzeko modukoak dira.

«ENPRESA BATEK UDALARI EMAN BEHARREKO 108.000 EURO BAINO GEHIAGO ORDAINDU GABE UTZI ZITUEN»

Leitzako kasuan, ikuskapena egin zaion enpresa horietako batek, berak bakarrik, lau urteko epean ordaindu gabe utzi zituen Leitzako Udalari ordaindu beharreko 108.000 euro baino gehiago (preskripzio-epeen ondorioz ezin dira aurreko urteei dagozkienak erreklamatu). Datu mingarria, kontuan izanda udalaren urteko aurrenkontua 2,5 milioi euro ingurukoa dela. Zenbat behar ase litezkeen dirutza horrekin!

Egoera ikusita, Leitzako Udalak, zerga-arloko arau-hauste larriak direla-eta, zigor-espediente bana abiatu du behar baino gutxiago aitortu duten enpresa hornitzaile guztien aurka. Nolanahi ere, ez dut uste Leitza salbuespena izanen denik enpresa hornitzaile hauek egin duten iruzurrezko praktikan, eta antzeko zerbait gertatzen ariko da gainerako udalerrietan. Ikuskatzea egin zaien enpresa ia guztiek Leitzan irabazi gutxiago aitortu izanak erakusten du praktika hori oso orokorra dela.

Aukerarik egokiena izanen litzateke onartzen den legeriak kontrol-mekanismoak ezartzea, iruzurrezko jardun horiek galarazteko. Bitartean, garrantzitsua da udalok jakitea baditugula aitorpen horiek berrikusteko baliabideak, TRACASA esate baterako.

Bukatzeko, jakin dezatela enpresa hauek, Leitzan ez diegula utziko iruzur egiten jarrai dezaten, eta ez dugula onartuko gure herritarren beharrak asetzeko erabili behar den dirua multinazional handien administrazio-kontseiluetara joan dadin, edo mozkinen banaketara, paradisu fiskaletako kontuetara, edo batek daki nora.

IRAKURLEAK MINTZO
Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA
info@ttipi.eus
948 63 54 58

HEMEROTEKA

«Saiatzen gara esnea ahal bezain garbi lortzen. Ardiei errapeak banan-banan garbitzen dizkiegu jetzi aitzinean. Lan handia da, ordu erdi inguru goizean eta pixka bat gehiago gauean, baina badakigu kalitate handiko gazta lortzeko garbitasuna garrantzitsua dela. Errapeetan zikin pixka bat etortzen da beti eta makina jartzen badiozu garbitu gabe, dena esnera doa. Horrekin batera, garrantzitsua da ardiak kanpoan bazkatzea ahal den denbora gehienean, eta gatzagi natural on batekin egitea. Gure bildotsen gatzagia erabiltzen dugu, izoztu egiten dugu urte osoan edukitzeko. Horiek dira hiru sekreturik handienak (...) Sariak etorri ala ez, garrantzitsuena urteko gazta saltzea eta bizitzeko behar duguna ziurtatzea da».

JULEN ARBURUA JIMENEZ LEKAROZKO GASNAGILEA
ARGIA. 2019.10.13

BOTA BERTSOA

EKAI MADARIAGA APAOLAZA
BAZTAN-BIDASOKO XXXII. BERTSOPAPER LEHIAKETAN I 2. SARIA (11-14 URTE)

Maiatzeko azken egunak

Doinua: Bizitza kantu bat da

Urte hasieratik
ez dugu guk etsi
baina eskolan ez naiz
notetan nagusi
azterketen aurrean
egin dugu eutsi
jostetara atetzeko
kuadernoak utzi
negatibo pila bat
baina bikain gutxi.

Urte osoan egon
gara su eta gar
bidean izan ttugu
hainbat sasi ta lar
eskolara egunero
atzo, gaur ta bihar
urtea ez baitela
pasatzen hain azkar
gutxi falta da baina
aguantatu behar.

GOITI ETA BEHEITI

Zaborrekin komeriak han eta hemen

Ezkerreko argazkia Etxalarkoa da. Edukiontzien bueltan, trasteak iraulka agertu ziren joan den astean eta Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitateak hori salatu nahi izan zuen. Facebook bidez adierazi zuenez, «ez pentsa hau astebeteko kontua denik. Gehien-gehiena arratsalde bateko kontua da». Eskuineko irudia, berriz, Berako Agerra auzokoa da. Irakurle batek bidali du eta honela dio: «maizago bildu edo bertze ontzi bat paratu».

Goiti eta beheiti!

Karrikan, mendian, ekitaldiren batean... Edozein tokitan zaudela ere, gustatu edo gustatu ez zaizun zerbait ikusi baduzu, eta hori goraipatu edo salatu nahi baduzu, kontaiguzu eta bidaliguzu argazkia!

Posta elektronikoa edo Whatsapp
Bidali mezua *info@ttipi.eus* helbidera edo whatsappez 744 484361 zenbakira, eta idatzi nork, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.



Mikel Nieve Iturralde leitzarra 2018az geroztik Mitchelton Scott taldeko txirrindularia da.

«Liderra izan ala ez, maila erakutsiz gero goian ibil zaitezke»

MIKEL NIEVE ITURRALDE LEITZAKO TXIRRINDULARIA

Ttikitako jolasa bizimodu bilakatua du Leitzako txirrindulariak. Dagoeneko hamaika urte pasatu dira profesionaletarako saltoa egin zuenetik eta ibilbidearen errepasoa egin du Ttipi-Ttaparekin.

G. PIKABEA LEITZA

Oroitzapen onek denboran irauten duten seinale dira Mikel Nieve Iturralderen (Leitza, 1984) ttikitako pedalkadak. Ez ditu ahaztuak haurra zela lagunartean bizikletan ibitzen zeneko «oroitzapen politak», ezta «Miguel Indurainek Frantziako Tourrak irabazi zituen urteak» ere. «Kuadrillan bizikletan ongi pasatzen» zuela ikusteak «9-10 urterekin Leitzako bizikleta eskolan» hasteko bidea ireki zion. Hortik aurrera sekula pentsatuko ez lukeen ibilbidea egin du. Hamaika urte badira profesionaletarako saltoa egin zuenetik eta «ttikitako ametsa bete» izanak sortzen dion ilusioarekin, gozatzen segitu nahi du.

Hamaika urte pasatu dira profesionaletan hasi zinenetik. Nolako bilakaera egin duzu?

Urte batzuk joan dira, baina denbora nahiko azkar pasatu dela esanen nuke. Profesionaletan hasi nintzenean, ez nukeen inondik inora pentsatuko goian hainbeste urte eginen nituenik. Afizionatuetatik profesionaletarako saltoa egin nuenetik nire maila erakusten aritu naiz, eta urteotan maila hobetu dudala eta profesionaltasun hori zer den ikasi dudala uste dut. Nire aldetik errendimendurik onena ateratzen saiatzen naiz eta alde horretatik pozik nago.

Mailarik gorenera ailegatu zara?

Bai. Nahiko emaitza onak lortu ditut. Ongi nagoenean hoberenengandik nahiko hurbil egoteko gai izan naiz. Askotan zailena ez da mailarik onenera ailegatzea izaten; batzuetan zailagoa izaten da urtez urte goian mantentzea eta lortzen ari naizela esanen nuke.

2008an Orbea taldearekin debutatu zenuen, 2009an Euskaltel-Euskadin ibili zinen 2013an desagertu zen arte, gero Sky-ra pasatu zinen eta lau urte egin zenituen, Orican ere ibili zinen eta orain Mitchelton Scott-en ari zara. Zer eman dizu bakoitzak?

Ez da erraza esatea. Orbean esperientzia gutxiko txirrindulariak sartu ginen, denak aurreneko urtekoak, eta lasterketa bakoitza erdi abentura izaten zen. Taldeak zerbait berria ezagutzeko eta lasterketetan sufritzen ikasteko aukera eman zidan. Euskaltelen, berriz, lantalde profesionalagoa topatu nuen, eta profesional izaten eta nire mailarik hoberena ematen hasi nintzen. Beste taldeetan, hainbat kultura eta bazter askotako jendea ezagutzeko aukera izan dut; hori ere aberasgarria izan da.

Alde handia sumatu duzu talde batetik bestera?

Bai, batez ere Euskalteletik Skyra. Sky oso talde handia da eta jende asko mugiarazten du. Taldean beste kultura bat ezagutu nuen, lan egiteko beste modu bat, eta egia esan, asko gustatu zitzaidan. Esperientzia oso aberasgarria izan zen Skyn egindako egonaldia. Mitchelton antzekoa da, pixka bat ttikiagoa, baina lan egiteko modua berdintsua da eta oso gustura nago.

Sky taldea zeronek utzi zenuen...

Kontratua bukatzekotan zela, Mitcheltonen proposamena jaso nuen. Eskaintza gustatu zitzaidan eta taldez aldatzeko momentua zela pentsatu nuen.

Beste talderen batetik eskaintzarik izan duzu?

Bai, eta alde horretatik pozik nago. Seinale ona da eta nire lana baloratzeko modu polita.

Onenen artean laguntzaile moduan ikusi izan zaitugu. Taldeko liderra izatea gustatuko litzaizuke?

Ez dut behar hori sentitzen. Liderra izan ala ez, errepideak erabakitzen du zein den ongi ari dena. Lasterketa handi bat irabazteko bestelako kalitatea behar dela badakit. Oso ongi nagoenetan nahiko hurbil ibili izan naiz, baina ez da liderra izan beharrik lasterketa bat irabazteko. Liderra izan ala ez,

«GORA AILEGATZEA BAINO ZAILAGOA DA GOIAN MANTENTZEA»

maila erakutsiz gero, nahiko goian ibiltzen ahal da.

Itzuli handienetan ibili zara... Zein da zure gustukoena?

Zaila da aukeratzea, itzuli bakoitzak zerbait berezia baitu. Italiako Giroan, Frantziako Tourrean edo Espainiako Vueltan momentu politak izan ditut eta gustura ibili naiz. Hala ere, beharbada oroitzapen berezienak Girokoak ditut; Italia aldean ibiltzea gustatzen zait.

Giroan etapak irabazi dituzulako?

Izan daiteke, baina lasterketa bera ere gustatzen zait. Italian txirrindularitza nola bizi duten eta nola animatzen gaituzten ikustea polita da... Giro ederra sortzen da.

Emaitza onak lortu dituzu aurten. Vueltan 10. postuan, Giroan 17. sailkapen orokorrean eta bosgarren mendikoan, zortzigarren Euskal Herriko Itzulian... Zer moduzko urtea izan da?

Ona. Paris-Nizan eroriko pare bat izan nituen eta denboraldi hasiera pixka bat aldrebestu zitzaidan. Baina gero, Euskal Herriko Itzulian oso gustura ibili nintzen, Italiako Giroan ere nahiko pozik gelditu nintzen, eta denboraldi bukaeran, Espainiako Vueltan, saltsan behintzat ibili nintzen. Ez nuen gustatuko litzaidakeen sentsaziorik onena eduki, baina azken astean nahiko ongi sentitu nintzen eta aurreneko hamarren artean sartuta, egindako lanak itxura pixka bat hartu zuen.

35 urterekin nola ikusten duzu txirrindularitza?

Oso ongi. Azken urteotan gero eta jarraitzaile gehiago ditu eta gero eta jende gehiago dabil bizikletan. Ni ere txirrindularitzarekin gozatzen ari naiz.

Zer eman dizu txirrindularitzak?

Gauza asko. Bizitzeko eta bizitza ulertzeko modu bat, esperientzia, beste hizkuntza bat, herrialde eta jende asko ezagutzeko aukera... Alde askotatik oso aberasgarria izan da.

Eta kendu?

Kendu ere egin dit. Bizitza sakrifikatua da. Lagunekin edo familiarekin egoteko denbora asko kentzen du. Orain haur ttikia dugula, oraindik gogorragoa egiten zait. Emaztearengandik eta umearengandik urrun egotea da gehien kostatzen zaidana.

Txirrindularitza eta familia uztartzeko nola moldatzen zara?

Denok moldatu behar izaten dugu. Emaztearen eta familiaren laguntzarik gabe, ezinezkoa izanen litzateke. Egun asko pasatzen ditut etxetik kanpo, etxean gaudenean ere nire entrenamenduak egin behar izaten ditut, deskantsatu ere egin behar da...

Hala ere, ttikitako ametsa egia bihurtu da?

Bai, dudarik gabe. Telebistan lasterketak ikusten nituenean, edo Euskal Herriko Itzulian errepide bazterrean animatzen aritzen nintzenean, horixe zen nire ametsa. Nahiz eta momentuan ez dudan asko baloratzen, amets hori bizitzen ari naiz eta alde horretatik pribilegiatua sentitzen naiz.

Euskal txirrindularitza nola ikusten duzu?

Oso ongi. World Tourreko mailan euskaldun dezente gaude eta herrialde ttiki bat izanda, baloratzeko modukoa iruditzen zait. Euskal Herrian txirrindularitza oso baloratua den kirola da, jendeak afizio handia du.

Leitza inguruan bada afiziorik?

Bai, afizio handia, eta gero eta jende gehiago ibiltzen da bizikletan. Aipatzekoa da Ibai Azurmendi herritarra Euskadi Fundazioan dabilela. Ez da erraza txirrindularia izatea, baina ea zorte pixka batekin gazteak aurrera ateratzen diren.

Txirrindularitzan segitu nahi duzu?

Bai, oraingoz bai. Ongi sentitzen naiz, entrenatzea gustatzen zait eta lasterketetan nire burua ongi ikusten dut. Gainera, daramadan bizitza gustatzen zait. Onartu behar dut ibilbidearen bukaeratik hurbilago nagoela hasieratik baino, baina orain gustura nabil eta ikusiko dugu noiz arte segitzen dugun.

Gazterik hasi zen txirrindularitzan nabarmentzen. Argazkia 2002koa da.

Euskaltelen zela, Giroan (2011n) eta Vueltan (2010ean) etapa bana irabazi zituen.

2011n herritarrek omenaldia eskaini zioten. Argazkian txapela soinean, lagunekin.

Motzean

Txirrindulari bat? Chris Froome.
Txirrindularitza ez den beste kirol bat? Pilota, futbola... Kirol gehien-gehienak gustatzen zaizkit.
Etxeko ttikiak txirrindularitza edo pilota aukeratuko balu, zer esanen zenioke? Bere afizioaz gozatzeko.
Leitzako tokirik gustukoena? Mendiak.
Gustura bisitatuko zenukeen toki bat? Asko, bat aipatzekotan, Machu Picchu.
Musika talde bat? Berri Txarrak.
Amets bat? Inguruko guztiak osasuntsu bizitzea.

Arnasguneak euskara biziberritzeko giltza

Euskararen arnasguneetako herritarrek euskararen ongizatean duten garrantziaz jabetzeko 'Arnasa Gara' kanpaina abiatu dute Euskal Herrian. Arnasguneak diren 22 udalerritan ari dira kanpaina aurkezteko ekitaldiak egiten, horien artean, Lesakan, Leitzan eta Goizuetan

G. PIKABEA

«Arnasguneetako herritarrak eredu dira euskararen normalizazioan. Euskaraz bizi den herria posible dela erakutsi dute, eta bizitzako esparru guztietan euskaraz egitea posible dela». Horri tiraka, eta 1991n Joshua Fishman soziolinguistak *Reversing Language Shift* liburuan nabarmendu zuen 'hizkuntz baten biziraupenerako eta biziberritzerako arnasgune bat zeinen garrantzitsua den' ideiari eutsiz, Arnasa Gara kanpaina hasi dute Nafarroako Gobernuak, Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoak, Eusko Jaurlaritzak, UEMAk eta Bizkaiko eta Gipuzkoako Aldundiek. Arnasgune diren herriak hizkuntza biziberritzeko «funtsezkoak» direla diote ekimenaren bultzatzaileek eta bide horretan, «arnasguneetako herritarrak ahaldundu» nahi dituzte, hau da, arnasguneetako biztanleak euskararen ongizatean duten garrantziaz jabetzea nahi dute.

2018an abiatu zuten kanpaina Nafarroako Gobernuak, Eusko Jaurlaritzak eta UEMAk. Euskal Herriko zortzi herritan, tartean Goizuetan eta Elizondon, ikerketa kualitatibo bat egin zuten, herritarrekin errealitatea ezagutzeko saioak antolatu zituzten eta herrietako esperientziak kontuan hartuz, kanpaina diseinatu zuten. Hainbat ondorio atera zituzten: arnasguneetan naturaltasunez euskaraz bizi daitekeela, herritarrek erabileran gainbehera sumatzen dutela, lantokietan gaztelerak presentzia altua duela, lagunartean erdaldunen bat badago gaztelerara salto egiten dutela, haurrek gero eta gehiago egiten dutela gaztelera, gero eta ohikoagoak direla solasaldi elebidunak...

Mattane Rodriguez Lesakako zinegotzia; Dabid Anaut Leitzaldeko euskara teknikaria.

Bi fase

Hasierako pauso horren ondorioa da Arnasa Gara kanpaina eta bi fase izanen ditu. Lehenbizikoan, Euskal Herriko 22 udalerritan kanpaina aurkeztuko dute eta ekitaldi horietan, bertzeak bertze, kanpainarako espresuki ekoitzi duten eta arnasguneetako sei herritar protagonista dituen *Kartzela* serie digitalaren lehenbiziko bi atalak ikusteko aukera izanen da. Durangoko Azokan bukatuko da lehenbiziko fasea, *Kartzela* serie digitalaren aurkezpenarekin. Bigarren fasean, abenduaren erdialdetik aitzinera, Euskal Herri osora hedatuko dute arnasguneetan zabaldutako mezua, bait web-seriea ere.

Aurkezpenak

Lesaka, Leitza eta Goizueta dira kanpaina aurkezteko aukeratu dituzten herrietako hiru. Lesakan urriaren 26an egitekoa zuten, Leitzan azaroaren 16an eginen dute eta Goizuetan azaroaren 23an. «Ekitaldi atseginak eta arinak» izanen direla iragarri du Dabid Anaut Peña Arano, Areso, Goizueta eta Leitzako Euskara Zerbitzuko teknikariak. Bere irudiko, ekimen «interesgarria eta zentzu handikoa» da: «gure herrietan euskarak arnasa hartzen du, eta hori azaldu eta zabaltzea garrantzitsua eta beharrezkoa da». Bide beretik jo du Mattane Rodriguez Etxabide Lesakako euskara zinegotziak: «euskararen erabilera eta normalizazioaren bidean egiten diren ekimen guztiak bezala,

Arnasa Gara kanpaina interesgarria eta aberasgarria da».

Arnasgune izateko 'koxka'

Etxeko errealitateari erreparatuz, «Lesakak arnasgune izateko ezaugarriak» dituela uste du Rodriguezek, «euskarak belaunaldiz belaunaldi sendo iraun du, hainbat arlotan nagusiki erabiltzen den hizkuntza da». Hori «berri pozgarria» bada ere, «ahulgune nabarmenak» badirela aitortu du eta «arnasgune izateko koxka bat» falta dela sumatzen du: «arlo batzuetan, hala nola, lan arloan edo helduen artean, ezin erran solasaldi guztiak edo ia guztiak euskaraz direnik. Bereziki helduen artean ezagutza eta erabilera nabarmen baxuagoa da». Alde horretatik, «zer egina» badutela dio. «Euskaraz beti edo ia beti aritzeak kokatuko gaitu bete-betean arnasgunean. Lesakan badugu lortzeko aukera eta horretarako aktibatu behar dugu».

Herritik kanpoko zuloak

Leitza eta Goizueta, berriz, «zorionez, euskarari indar eta bizitasun handiz eutsi dioten bi herri» direla nabarmendu du Anautek: «Euskal Herriko eta Nafarroako inguru euskaldunenetakoa da gurea eta hemen neurri handi samar batean euskaraz bizi daiteke». Bi herrietan «euskarak bereganatuak dituen espazioak asko eta esanguratsuak» direla gaineratu du. Hala ere, «zulo handiak» antzeman ditu, «ez baikara burbuila batean bizi». Adibide gisa, «hedabide orokorrak, sare sozialak, herritik kanpora gelditzen zaizkigun administrazioak, zerbitzuak eta aisialdiak» aipatu ditu: «erdarak baditu sarbide indartsuak eta eragin handikoak, hori ezin da ukatu». Hortaz, «irabazitako asko dago, baina irabazteko dezente ere bai», aipatu du.

«BETI EUSKARAZ EGITEAK KOKATUKO GAITU BETE-BETEAN ARNASGUNEAN»

«UDALERRI EUSKALDUNAK ERDALDUNAGOEN EREDU GARA»

MATTANE RODRIGUEZ, LESAKA

«GURE HERRIETAN EUSKARAK ARNASA HARTZEN DU»

«EUSKARA BIZI-BIZIRIK DAGOEN HERRIAK BEHAR DITU EUSKARAK»

DABID ANAUT, LEITZA ETA GOIZUETA

Euskalkiarekiko estimua

Bertako euskalkiaren harira, lesakarrek euren euskalkia «estimatzen» dutela uste du zinegotziak: «bortziritarrak eta zehazki lesakarrak garen seinale da, identitate ikur». Edozein moduz, «hainbat hitz eta adiera galtzen ari direla» ohartarazi du, «batez ere haur eta gazteen artean. Hiztegia pobretzen ari da, eta hori Euskal Herri osoan gertatzen ari da».

Teknikariak ere euskalkiarekiko «jarrera positiboa» nabaritzen du leitzarren eta goizuetarren artean, baita «harrotasun sentimendua» ere. Baina «bertako hizkerak asko eta azkar aldatzen» ari direnez, «hizkerak duen aberastasuna galtzen ez uztea erronka» izan daitekeela dio, «bertakoari eutsi eta euskara batuari ere hori eman, bertako hizkera eta euskara batua osagarri eginez».

Bertzeen eredu

Anauten irudiko, arnasguneen «berezitasun handiena neurri batean euskaraz bizitzeko aukera» ematen dutela da. «Hori hemendik kanpo herritar askok duten ametsa da». Bere hitzetan, ordea, «ziur asko jendea ez da behar beste jakitun arnasgune batean bizitzeak euskarari nolako ekarpena egiten dion». Argi du «euskara nagusi izanen den espazioak behar dituela euskarak: ez da nahikoa hizkuntzaren etorkizuna bermatzeko euskara bizirik dagoen herriak egotea, baina euskarak ezinbestean behar ditu halako guneak, biziko bada». Rodriguezek herritarrak arnasguneen garrantziaz «kontzientziatzea beharrezkoa» ikusten du, «udalerri euskaldunak eta bertako herritarrak euskararentzat ezinbertzekoak gara; inguru erdaldunagoentzat eredu».

Anautek dioen bezala, «erlaxatzeko aukerarik ez» dagoenez, kanpainarekin bat egiteko deia egin diete zinegotziak eta teknikariak herritarrei. «Arnasa Gara euskararen normalizazioan eta biziberritzean lagunduko duen urratsa izanen da».

«Bakoitzak gure euskalkia erabili izanak egiten du istorioa berezi»

JUANEN SARALEGI ALZATE 'KARTZELA' SERIE DIGITALEKO AKTORE LESAKARRA

Arnasa Gara egitasmoaren barne, *Kartzela* serie digitala ekoitzi dute, bertsolari txapelketako finala bukatu ondotik, BECen preso gelditu diren sei lagunen istorioa kontatzen duen zazpi kapituluko webseriea. Arnasguneetako herritarrak dira protagonistak, Euskal Herriko sei bazterretakoak, eta bakoitzak bere euskalkia erabili du. Hori da, hain zuzen, seriean parte hartu duen Juanen Saralegi aktore lesakarraren iritzia, «istorioaren berezitasuna».

Aitortu digunez, «kasualitatez» hartu du parte: «zuzendaritzako baten etxean lanean ari nintzela, nire profileko aktorea behar zutela aipatu zidan, nafarra, 40 eta piko urtekoa...». Hala, «probatxo bat egin» eta aukeratu zuten. Esperientzia «ia berria» izan da beretzat, «antzerkian urteetan ibili naiz baina kameren aitzinean gauza gutti eginak ditut». Halere, kontent ibili da, «gogoa eta ilusioa» sumatu dituen taldean; «hagitz ongi moldatu gara».

Kartzela webserieko aktoreak; ezkerretik hasita bigarrena Juanen Saralegi.

Gainerakoan, kanpaina «egunerokoan euskara aunitz erabiltzen duten herriei eginiko aitorpen polita» iruditzen zaio: «normaltasunez euskara erabiltzen dugunak ez gara ohartzen gure herritik kanpo euskara ez dela hain erabilia». Hortaz, kanpainak «euskara ahalik eta gehien erabiltzeko indarra» eman beharko lukeela dio. Bide batez, «euskara hainbertze erabiltzen ez duten ondokoak kutsatzea» nahi luke, «euskaraz dakitenak erdaraz aditzeak min egiten didalako».

XXI. Kafe-Antzerki Zikloa eginen dute azaroan

Tartean Teatroa taldearen 'Tabernaria' antzezlana ikusgai izanen da Kataku ostatuan azaroaren 10ean

TTIPI-TTAPA

Berako Euskara Batzordeak, Kultur Batzordearen eta Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen eta Berako Kultur Batzordearen laguntzaz antolatutako XXI. Kafe-Antzerki Zikloa azaroaren 10ean, igandean abiatuko da. Tartean Teatroa taldeak *Tabernaria* eskainiko du, Mikel Martinezen bakarrizketa, eta ordu erdiko bi pase emanen dira, 18:00etan eta 19:00etan.

Mikel Martinez 'Tabernaria' lanean.

Azaroaren 17an, igandean 18:00etan Bidaxka ostatuan, Beheko Larraine taldeak *Manifestu bat* eskainiko du eta bukatzeko, azaroaren 24an, igandean 18:00etan Goxune kafetegian, Lankuren eskutik, *Bakean dagoenari bakean utzi!* eskainiko dute.

Argazki erakusketa zabalik Labiaga ikastolaren erakusgela berrian

TTIPI-TTAPA

Labiaga Ikastolak erakusgela berria ireki zuen urriaren 26an, Lurraren Egunaren bezperan. Altzate karrikako Labiaga Ikastolan dagoen Areto Nagusia zabalik egonen da astebururo, larunbat eta igandetan arratsaldeko 4etatik 8etara. Bertan arte erakusketak jartzeko asmoa dute, izan margoa, eskultura edo kasu honetan bezala, argazkilaritza. Izan ere, urriaren 26tik abenduaren 29ra Aitziber Orkolagaren *Plaketak* argazki-erakusketa dago ikusgai, *Baffest* argazki lehiaketa irabazitako proiektua.

JUAN MARI ONDIKOL

'Hil-kanpaiak' grabatzen elizan

Miren Gorrotxategi idazle azpeitiarraren *33 ezkil* eleberrian oinarrituta, *Hil-kanpaiak* filma grabatzen ari dira, Iruñeko Imanol Rayoren zuzendaritzapean. Nafarroan egin beharreko azken grabaketak urriaren 18an egin zituzten Beran, San Esteban eliza inguruan eta barrenean.

UTZITAKO ARGAZKIA

Mirua abesbatza herrikoarekin kantari

Iruñeko Mirua Abesbatzak kontzertu bikaina eskaini zuen urriaren 19an Kultur Etxean, Ana Tejedorren zuzendaritzapean. Berako Abesbatzak antolatu zuen emanaldia eta Fatima Gonzalez zuzendariak, Isidoro Fagoagari buruzko liburua oparitu zien Mirua abesbatzakoei.

Ricardo Baroja eskolako ikasleek musika sorkuntza lantegian parte hartuko dute

TTIPI-TTAPA

Aurtengoa ez da nolanahiko ikasturtea izanen Ricardo Baroja Eskola Publikoko Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailako ikasleentzat. Izan ere, Euskal Herriko Musika Bulegoak antolatutako *Soinua Iratzarri* proiektuan parte hartuko dute. Egitasmo hau, sorkuntza musikala eta euskal musikagileen ezagutza bateratzen dituen musika lantegi bat da. Beraz, ikasleek, musika garaikidea oinarritzat hartuz, ikasturte osoan zehar konposizio baten sorkuntza prozesuan parte hartuko dute Iñigo Giner musikagile profesionalaren eskutik eta Maite Bilbao zuzendari pedagogikoaren laguntzarekin.

Proiektua, bi urtetik behin, Euskal Herriko hiru ikastetxetako ikasleekin aitzinera eramaten dute. Eta eskola gutxi batzuk bertan parte hartzeko aukera izaten dute. Beraz, zorionekoak beratarrak.

Ea ba proiektuaren edizio honetan obra interesgarriak sortzen dituzten. Gozatu musikaz!

Egitasmoaren irudia.

Ur-kontsumoaren jautsiera nabarmen jarri du Udalak

Duela bortz urteko ur kopuruaren erditsua ateratzen da Suspelttikiko depositutik eta ez da kanpotik urik erosi

TTIPI-TTAPA

Aspaldian Beran arazoak izaten dira uda garaian, ur-eskasia dela eta. Azken urteetan hainbat lan egin dira ur-instalazioen kontrolean eta hobekuntzetan, baita hornikuntza puntu berriak martxan jartzen ere. Bi bide hauetan lan egin behar dela argi dute Herriko Etxean: ur gehiago biltzen eta gure ur-sareetan ur-ihesak murrizten.

Kasu honetan sareetan galtzen den ur kopuruan izandako aldaketa nabarmen baten berri eman nahi izan dute. 2014. urtean, Kaxerna edo Suspelttikiko deposituan datuak automatikoki jasotzen hasi zen udala eta egun osoan ateratzen zen ur kopurua 1.600 metro kubiko ingurukoa izan ohi zen. Goizeko 6etarako, berriz, (gaueko kontsumoa, gehienbat ur-isuriak) 300 metro kubiko inguru atera ohi ziren.

Azken urte hauetan sareak berritu, presioa jaisteko balbulak jarri, deposito guztiak monitorizatu ordenagailutik kontrolatzeko, ur galerak harrapatu eta moldatu eta bertze hainbat lan egin dira. «Honen ondorioz inoiz izan ditugun ur kontsumo daturik onenak ditugu momentu hauetan», azpimarratu dute Herriko Etxetik.

Usategietako depositoko lanak iaz.

Kontsumoa ia erdira

Egun osoan 850 metro kubiko inguru ateratzen dira depositutik, goizeko 6etan berriz 100 metro kubiko inguru. «Datu hauei esker eta udan zehar egin duen euriari esker, aurtengoan ez dugu kanpotik urik erosi beharrik izanen», adierazi du Udalak. Modu berean, «bide onean goazela garbi dago baina oraindik bada zer hobetu herriko ur sareetan eta horretan segiko dugu».

UTZITAKO ARGAZKIA

XV. margo lehiaketa aire zabalean

Gure Txokoa elkarteak, Udalaren babesarekin antolatutako XV. margo lehiaketa aire zabalean egin zen urriaren 20an. Hamabortz margolariren artean, 1.000 euroko lehenbiziko saria Bergarako Juanjo Altunak eskuratu zuen eta 700 euroko bigarren saria Plentziako Letizia Gasparrek.

Robotika ikastarolantegia azaroaren 7an eta 14an

Nafarroako Gobernuak eta Euskarabideak antolatuta, Sarean Euskaraz egitasmoaren barrenean, robotika ikastaro-lantegia eginen dute azaroaren 7an eta 14an. Ortzegunetan 17:00etatik 20:00etara eskainiko da doako ikastaroa Beralandetan, hiru orduko bi saio. Izen-ematea *www.sareaneuskaraz.eus* webgunearen bidez egin behar da.

Bertze aldetik, azaroaren 6an, *Solaslaguna* egitasmoaren aurkezpen-berendua eginen dute, 19:00etan Beralandetan.

Estitxu Pinatxok diska aurkeztuko du azaroaren 9an

Estitxu Pinatxo abeslariak *Haize gorri batek* bere lehen diska aurkezteko kontzertua eskainiko du azaroaren 9an, larunbatean 19:00etan Kultur Etxean. Sarrera 6 euro ordaindu beharko da. Pinatxok aipatu duenez, musikari «bikainez» inguratuta grabatu du. Gitarrarekin Joxerra Mitxelena, baxuan Txema Garces eta baterian Mikel Santxez izan ditu lagun.

Egun berean, goizez, Baztan-Bidasoaldeko ekoizleen azoka eginen dute Ricardo Baroja eskolako estalpean.

Haurrentzako topaketa prestatzen hasi da Giltzarri

Otsailaren 15ean eta martxoaren 28an izanen dira entsaioak eta apirilaren 4an kontzertua Harriondoan

AITOR AROTZENA

Giltzarri Abesbatzak Haur Kantarien IV. Topaketa antolatu du heldu den urteko hasierarako. Urtero antolatzen dituen ekitaldi guzien artean garrantzi berezikoa da abesbatzarentzat, musika oinarri-oinarritik sustatzeko duen balioagatik. Imanol Elizasu izanen da oraingoan ere kurtso guziaren gidari. Ospe handiko musikaria da Elizasu: zuzendari, piano-jotzaile eta abeslari bikaina. Ahots lanketan zortzi urtez izan da Baionako Kontserbatorioko irakasle, eta zuzendari bezala musika jaialdi eta lehiaketa anitzetan aritua da hainba abesbatza zuzentzen, eta Euskal Herrian eta atzerrian, zenbait sari garrantzitsu lortu ditu.

Topaketa 6tik 12 urtera bitarteko haur bortziritarrentzat dago irekia, hau da, Lehen Hezkuntzako 1. mailatik hasi eta 6.a bitarteko ikasketetan ari direnentzat. Harriondoan izanen dira topaketaren ekitaldi guziak: otsailaren 15ean eta martxoaren 28an izanen dira entsaioak, 10:00etatik 13:00etara, eta apirilaren 4an izanen da kontzertua, oraindik zehaztu gabe dagoen tenorean.

Hauexek dira landuko dituzten kantuaren atalak: ahots lanketa, hainbat estilotako lanen interpetrazioa, entsaio dinamika eta eszenatokiko lana. Musikaz gozatzeko aproposak eta, zeinek daki, inguruko abesbatzak etorkizunean kantariz elikatzeko baliagarriak izaten ahal direnak.

Laugarren aldiz eginen dute topaketa datorren urtean. ARTXIBOKOA

UTZITAKO ARGAZKIA

Ttirriki-Ttarraka bideo lehiaketa irabazi

Ttirriki-Ttarraka egitasmoa ezagutzera emateko eta kantuari bideoa jartzeko lehiaketa antolatu du Tantirumairu Ikastolak. Lehen saria June Salgado, Ekiñe Salgado, Lexuri Arotzena, Maitane Erkizia, Janire Otxandorena, Nahia Pumar, Onintze Iparragirre eta Saioa Orbegozok egindako lanarentzat izan da.

AITOR AROTZENA

ANFASen Ate Irekien Eguna

ANFASek gure inguruan egiten duen lana erakusteko eta esperientziak elkartrukatzeko Ate Irekien Eguna izan zuten urriaren 22an, udalaren erabilera anitzeko aretoan. Solasaldi eta ikusentzunekoaren ondotik, hamaiketakoa izan zuten familiek eta langileek. Ladis Satrustegi alkatea ere bertan zen.

Parranda giroko aukerak eta arriskuak aztergai

Feriak aitzakia hartuta, 13-16 urteko nerabeekin parranda giroak eskaintzen dituen aukera eta arriskuez aritzeko elkargunea eskainiko dute Bortzirietako Gizarte Zerbitzuek. Azaroaren 14an eginen dute saioa. Izen-ematea whatsapp bidez: 634 22 36 59.

Larre erreketak egiteko baimenak eska daitezke

2020an larre erreketak egin ahal izateko, dagokion baimena eskatu beharko da Herriko Etxean. Eskaerak egiteko epea otsailaren 1era arte zabalik dago eta erreketak apirilaren 30a arte egin daitezke. Baimenik gabeko erreketak debekatuak daude.

Argentina eta Txileko kontzertuetatik herriko oholtzara

Hirugarren urtez kontzertua eskainiko du Carlos Nuñezen taldeak, Itsaso Elizagoien trikitilariekin, Etxalarren

IRUNE ELIZAGOIEN

Hilabetez izan da Itsaso Elizagoien Argentina eta Txilen kontzertuak eskaintzen Carlos Nuñez eta bere taldearekin. Inoiz pentsatuko ez lukeen esperientzia bizituta itzuli zen herrira urriaren 14an, bederatzi kontzertu eskainita. Orain berriz, Eguberrietako bira prestatzen hasiak dira eta tartean izanen da abenduaren 15ean Etxalarko Andre Mari Elizan eskainiko duten kontzertua. Kontzerturako sarrerak dagoeneko salgai daude Elutsan eta Herriko Ostatuan (19 euro) eta *entradas.ataquilla.com* web orrian.

Itsaso Elizagoien, kontzertu batean.

Uso-denboraldia motel

Uso-denboraldiari dagokionez, Usategietako igande arte harrapatutakoekin, nahiko «denboraldi motela» doala azaldu dute usazaleek; 20 dozena inguru dituzte harrapatuak.

2020rako sutarako egurra eskatzeko azken egunak udaletxean

IRUNE ELIZAGOIEN

Urriaren 31a arte izanen da 2020ko sutarako egurra etxerako eskatzeko epea. Ondotik zuhaitzak markatuko dituzte eta loteen zozketa gauzatuko da. Lotea eskatzerakoan 10 euro ordaindu beharko dituzte eta ondotik egurra prestatzeko lanen kostua. Nahi duenak lotea etxera eramateko eskatu dezake. Baldintza guztiak edo informazio gehiago *www.etxalar.eus* helbidean.

IRUNE ELIZAGOIEN

Usategietako asteburua giro onean

Jende mugimendua sumatu zen urriaren 19an eta 20an. Larunbatean 15 bikotek jokatu zuten mus txapelketa eta ondotik 63 lagunek hartu zuten parte patata tortila txapelketan. Gaua Dj Aimarren musikarekin bukatu zuten bertaratutakoek. Igandean, jende gutti igo zen Usategietara.

UTZITAKO ARGAZKIA

Hondamenak urriaren 19ko gauean

Herritarrak haserre dira urriaren 19ko gaueko hondamenekin. Lore-ontziak hautsi, elizako gorostia ipurditik atera, farola bat okertu eta bertze bat errekara bota, informazio panelak bere lekutik atera… Penagarria da batzuk, bestaren aitzakian, jende guztioi kaltetzen diguten txikizioak egiten dituztela ikustea.

Elizatea zaharberritzeko lanei ekiteko lehen urratsa eman dute. OSKAR TXOPERENA

Elizatea goitik beheiti eraberritzeko proiektua abian da

2020ko besten ondotik lanekin hasteko asmoa du Udalak eta bitartean oraingo maizterrek segituko dute bertze urte betez

TTIPI-TTAPA

Rue Arquitectos-ek eginen du Elizatea goitik beheiti eraberritzeko proiektua, aurkeztutako bortz eskaintzen artean eurena hobetsi baitu Udalak. Aunitz dira eman beharreko pausuak eta lotu beharreko kontuak eta tramitazioa mantso doa nonbait, Herriko Etxeak nahiko lukeena baino aunitzez mantsoago. Urtetan idazkari izandakoa joan zenetik ordezkariaren kontua ezin egonkortuz dabiltza aspaldian eta afera izugarri eragiten ari zaio gai guzien abiadurari, eta Elizatekoa ez dago horretatik salbu. Ahalik eta lasterren egin nahi dute arkitektoen kontratua, horrek ahalbidetuko baitu proiektuarekin behingoz lanean hastea. 2020ko besten ondotik eraberritze lanak hasteko asmoa daukate, gauzak behar bezala joanez gero lanen esleipena orduko egina izatea espero baitute. Bitartean, jatetxeko oraingo maizterrek bertan bertze urtebetez jarraituko dutela hitzartua daukate, lanak hasi bitartean. Berritu ondotik berriz ere eskaintzak entzuteko garaia etorriko da, esleipenaren baldintzak oinarritik berrikusi ondotik.

'Herri txiki infernu handi' ETBko saioak bazterrak harrotu ditu

TTIPI-TTAPA

Besta aitzineko egunetan harrotu samarra ibili zen herria *Herri txiki infernu handi* programa zela medio. Elkarrizketatzaile eta kameralariekin nonahi topo egiteko aukerak urduri samar eduki zuen jendea zenbait egunez. Azkenik, irailaren 27an, besten atarian, grabatu zen aurkezpen-saioa eta urriaren 13ko arratsean izan zen telebistako emanaldia. Jendeari aunitz gustatu zaio, hagitz saio txukuna atera baitzen denen erranetan. Herritar hauexek izan ziren saioko protagonistak: Jose Luis Antxordoki, Anuntxi Txoperena, Eneko Telletxea, Roberto Txoperena, Angelita Oskoz, Marijo Zelaieta, Pili Iturbide eta Jose Luis Sein *Plaxen*.

Plaxen eta Zuhaitz Gurrutxaga. ETB

Bertzalde, hagitz komentatua izan da Joakina Huitzi Antsoneko bordakoak Añorgari zegokion programan izan zuen parte-hartzea. Azaroan 105 urte beteko ditu eta harritzeko moduko sasoia erakutsi zuen.

Liberiako gaztea herriko etxe batean izan da lau astez

Lau astez egon da etxe batean 21 urteko gazte liberiar bat, orain dela urte bat bere herrialdetik joandakoa. Lau hilabete behar izan zituen Espainiara iristeko. Azken zatia, Nadoretik Almeriarainokoa, zodiac batean egin zuen bertze 65 lagunekin. Errefuxiatu gisara etorria, asiloa ematea onartu berri diote eta Tolosako CEAR-Euskadi errefuxiatuen egoitzara joana da.

Ohiko abiadura hartu du eskolak ikasturte honetan

Bestak pasatuta, sasoi beteko martxa hartu du eskolak. Foruzainak antolatutako Gida Eskola izan zuten. Gelaz gela ibili ziren foruzainak oinarrizko zirkulazio arauak erakusten eta ondotik bizikletaz ibili ziren ikasleak pilotalekuan egindako zirkuitoan. LHko ikasleak Alkaiaga aldera joan ziren bizikletaz bertze egun batean, foruzainak Berrizaungo joan-etorrian lagunduta.

PRIM, c.b.
Fisioterapia Zentroa
Itzea 1, behea • T./F. 948 625 206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • T./F. 943 633 050 • IRUN
logurak
www.logurak.com
gaueko konfort-kuxina
Centro Prim
regina tolosaechepare

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

Jaurena
Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com
Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak
Etxetresnen salmenta, instalazioa eta etxez etxeko konponketa
Antenak, satelite bidezko instalazioak

XXIV. Baserritarren Eguna eginen da ortziralean

Larunbatean magia ikuskizunaz gain, mus eta partxis txapelketak antolatu ditu Ekaitza Elkarteak

NEREA ALZURI

Joan den asteburuan izaniko jardueren ondotik, ortzirale eta larunbat honetan, kultur egunek segida izanen dute, hainbat ekimen antolatu baititu Ekaitza Elkarteak.

24. ediziora ailegatu den azaroaren 1eko Baserritarren Egunaren helburua hasierako berbera izaten segitzen du: herritarren produktu, eskulan eta aziendekin osatutako merkatua antolatzea. Edizio honetan ere, hogeiren bat erakusketa eta salmenta postu izanen dira herrian egindako barazki, gozoki, zerriki, talo eta eskulanekin. Bertzetik, aziendak ikusteko aukera ere izanen da azokan.

Gazta eta ahari lehiaketak ere antolatu ditu Ekaitza Elkarteak eta urtero bezala, bertako produktuekin osatutako saskiaren zozketa eginen du. Pintxoak eta tragoxkak hartzeko ostatua ere paratuko dute frontoian. Eskolak hartuko du ardura eta bertatik ateratakoa, haurrek egiten duten antzerki tailerra ordaintzeko izanen da. Herriko tri-

Gazta lehiaketa eginen da ortziralean.

kitilari eta panderojoleek ere alaituko dute goiza.

Bezperako eta geroko lanak

Bezperan, ortzegun arratsaldean, merkatuko postuen zozketa eginen dute lehenbiziko, eta ondotik, denen artean postuak muntatuko dituzte. Azaroaren 1eko goiza bukatu ondotik, berriz, dena bildu eta garbituko dute.

Larunbatean gehiago

Larunbaterako jarduera gehiago antolatu ditu Ekaitza Elkarteak. 16:00etan Niala magoaren ikuskizuna izanen da eskolan. 17:30ean partxis txapelketa hasiko da elkartean eta 19:00etan mus txapelketa jokatuko da toki berean.

Eskolako haurren argazkiekin eginiko egutegiak salgai

Eskolako haurren argazkiekin hornituta, aurten ere egutegia kaleratu du Guraso Elkarteak. Baserritarren Egunean paratuko dute salgai, hamar eurotan, eta hor eskuratzen ez duenak *arantzakogurasoelkartea@gmail.com*era idatziz eskatzen ahalko du.

Egutegi koloretsua atera dute.

UTZITAKO ARGAZKIA

Kataluniarrei babesa adierazi diete

2017ko urriaren 1eko erreferendumagatik epaitu dituzten Kataluniako bederatzi buruzagi independentisten aurkako epaia salatu eta kataluniarrei elkartasuna adierazteko, hainbat herritarrek elkarretaratzea egin zuten urriaren 18ko eguerdian plazan.

UTZITAKO ARGAZKIA

Bonifacio eta Julita omenduak

85 urte bete dituzte aurten Bonifacio Oskoz Almandozek eta Julita Iturria Alzurik eta Arkupeak Jubilatuen Elkarteak omenaldia eskaintzekoa zien joan den urriaren 24an Gorraizen. Eurekin batera, hainbat bazkidek jasotzekoa zuten omenaldia.

Auzolanean prestatzen dituzte Euskal Herriko milaka etxetara banatzen dituzten saskiak. ERRIGORA.EUS

Berrikuntzekin dator udazkeneko Errigoraren kanpaina

Urriaren 30etik azaroaren 20ra bitarte eskatzen ahalko dira Nafarroa hegoaldeko produktuekin osatutako saskiak

TTIPI-TTAPA

Abian da Errigora, Euskal Herria oinarri eta auzolana lanabes dituen ekimen herritarra. Nafarroa hegoaldea du ardatz eta euskara ofiziala ez den eremuan eragin nahi du, eremu horretakoak propio diren elikagaiei Euskal Herrirako bidea emanez, euskaraz.

Bi kanpaina nagusi egiten dituzte urtero, udaberrian, *Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura* kanpainaren barne bertako oliba-olio birjina estra eta kontserba-sortak banatzen dituzte bertako ekoizpena eta ekonomia sustatuz.

Udazkenean, berriz, aurtengoan, urriaren 30etik azaroaren 20ra, *Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka* kanpaina egiten dute, Nafarroa hegoaldeko produktuz osatutako saskiak milaka etxetara eramanez. Bertako euskalgintzarentzako ekarpen ekonomiko garrantzitsua izaten da, bildutako diruaren %25a zonaldeko ikastolei, Sortzeni eta AEKri laguntzeko izaten baita. Aipatzekoa da, Errigorari esker, 2013tik 2018ra ia 1.000.000 euro bideratu dituztela euskalgintzara.

Berrikuntzak

Udazken honetako kanpainak bi berrikuntza nagusi ditu. Alde batetik, aurten, bi saski beharrean hiru eskainiko dituzte: beltza (arrunta) 50 eurotan, berdea (ekologikoa) 60 eurotan eta zuria (berezia) 70 eurotan. Saskiak *errigora.eus* atarian eskatzen ahalko dira, baita herriz herri hainbat tokitan ere.

Aurtengo bertze berrikuntza Agerraldia izeneko ekimena da, euskara herriko plazetara eraman nahi duen ekimena. Nafarroa hegoaldean eta erdialdean euskalgintzaren eta euskaltzaleen beharrak asetzen laguntzeko eta indartzeko sortu dute, gisa horretara, euskararen ezagutza errazteko, erabilera sustatzeko, euskararen aldeko jarrerak bultzatzeko eta euskararen presentzia handitzeko. Hori lortzeko bidean, zonaldeko euskaldunak, euskaltzaleak eta eragileak saretu nahi dituzte. Oraingoz, saretzeari ekin diote eta udaberrian jardueren agenda martxan jarri nahi dute.

Zozketa Ttipi-Txartela duten harpidedunen artean

TTIPI-TTAPAk bi saski zozketatuko ditu Ttipi-Txartela duten harpidedunen artean: beltza eta zuria. Ttipi-txarteldunak zuzenean sartuko dira zozketan eta sariruek TTIPI-TTAPAren bulegora etorri beharko dute saria jasotzera.

Jaialdian parte hartu zuten dantzari guztiak erraldoiekin frontoian. MAIDER PETRIRENA

Jaialdi ikusgarria eskaini dute herriko dantzariek aurten ere

Haur, gaztetxo eta helduek hamasei dantza dantzatu zituzten urriaren 19an frontoian egindako saioan

MAIDER PETRIRENA

Urriaren 19an urte guztian ikasitakoa erakutsi zuten herriko dantzariek eskainitako dantza jaialdi ikusgarri eta jendetsuan. Guztira hamasei dantza egin zituzten, haur, gaztetxo eta helduek. Agurrarekin eman zioten hasiera eta ondotik *Desmayo*, Neskatxa, Borobila, Txalo-polka, *Scottish*, *Polka*, Gorulari, *Bercijana*, Arin-arin, Dantza, *Cuatro calles*, *Bailaos*, Makil ttiki, Xuxi eta denak batera Ttipitto dantzatu zituzten.

Eskerrak eman antolatzaileei, irakasleei, musikariei, Baztango dantzarieri, baita parte hartu duten guztiei ere.

Taldeetako bat. MAIDER PETRIRENA

Helduak dantzan. MAIDER PETRIRENA

UTZITAKO ARGAZKIA

Asier Navaridas txapeldunorde Basaurin

Basauri-Bilbondo lehen Sari Nagusiko finalean jokatu du Asier Navaridas herritarrak Gorka Santxez bikotearekin. Txapeldunordeak izan dira eta txapela etxeratu ez arren, txapeldun handiak direla erakutsi dute goi mailako jaialdian.

'Moldaera: klima aldaketaren aurkako beste borroka' ikusgai

TTIPI-TTAPA BERTIZ

Nafarroako Gobernuak, Lursarea-Nasuvinsa-ren laguntzarekin batera, KLINA-ren esparruan (Nafarroako klima--aldaketaren bide-orria) eta LIFE NADAPTA proiektuarekin, gure ingurunean klima-aldaketaren fenomenoak duen inpaktuaren ezaguera sustatu nahi du erakusketa baten bidez. *MOLDAERA: klima aldaketaren aurkako beste borroka* erakusketa, euskarazko eta gaztelaniazko 14 panelek osatuta Bertizko Jaurerriko erakusketa aretoan ikusgai dago urriaren 24tik azaroaren 3ra arte. Erakusketaren inaugurazioa urriaren 24an egin zuten, bisita gidatuarekin eta aperitiboarekin.

Urrian 10:30etik 13:30era eta 16:00etatik 17:30era irekiko dute erakusketa eta azaroan 10:30etik 13:30era eta 16:00etatik 17:00etara.

Klima aldaketa: XXI. mendeko erronkarik handiena

Klima aldaketa da, seguruenik, gizarteak eta ingurumenak XXI. mendean daukaten erronkarik handiena. Zientzia-elkarteek, gazteek, gizataldeek baita erakunde publiko aunitzek ere «larrialdi klimatikoa» deklaratu dute. Helburu nagusiena berotze globala gelditzea bada ere, agerikoa den klima epel, muturreko eta ezezagunen aurreko giza-erantzuna nahitaezkoa da.

14 panelek osatzen dute erakusketa.

Joan den urtean, Malerrekako Hamaikakoaren aurkezpenean. ARTXIBOKO ARGAZKIA

Azarorako zinema, aurkezpenak eta hitzaldiak prest

Hilaren 16an, Andoni Egaña bertsolariak bere bizitzari lotutako bertso sortak kantatuko ditu

TTIPI-TTAPA
Zinema-emanaldi, aurkezpen, hitzaldi... azaroan hamaika ekitaldi izanen dituzte herrian. Urriaren 31n, ortzegunean, Halloween aitzakiatzat hartuz Malerrekako Firin-Farandula antzerki-taldearen emanaldia izanen dute, 17:30ean zineman. Adin guztietako ikusleei eta bereziki gaztetxoei bideraturiko emanaldia izanen da. Ekitaldi horren bidez zabalduko da azaroko agenda bete-betea.

Kontzertua, ipuinen txokoa eta zinema
Azaroaren 3an, igandean, Vocal Group Era abesbatza letoniarraren kontzertua izanen dute, elizan, 19:00etan (xehetasunak 744.zk.). Urriaren 8an abiatutako ipuinen txokoak ere azaroan segida izanen du. Hilaren 5ean, 12an, 19an eta 26an, 11:00etan liburutegian bilduko dira, Haizea Loiraren eskutik. Tartean, hilaren 10ean eta 24an guraso elkarteak eta Gazte Burrunbak antolatutako zinema emanaldiak izanen dituzte (lerro hauek idaztean filmak zehazteke zituzten).

Margaret Atwood idazleari buruzko hitzaldia
Azaroaren 8an, ortziralean, Margaret Atwood idazleari buruz solas egiteko bilduko dira liburutegian. Josune Muñoz euskal filologo eta literatura feministaren alorreko kritikariak eskainiko du hitzaldia, 18:00etatik 21:00etara.

Udazken feria
Ohiko hitzorduek ez dute hutsik eginen. Azaroaren 15eko udazken feriaren bueltan, aizkora apustua izanen dute eta, aurten ere, lila puntua paratuko dute (xehetasunak 21-25.or.). Biharamunean, azaroaren 16an, *Niretik* emanaldia izanen dute. Andoni Egañak bere bizitzari lotutako bertsoak kantatuko ditu, Jon Ostolaza soinujolearen laguntzaz.

Euskaraldiaren aurkezpena
Ekitaldiek ez dute etenik izanen. Azaroaren 21ean, ortzegunean, Euskaraldiaren bigarren edizioa aurkeztuko dute. 19:00etan bilduko dira Mankomunitatearen egoitzan.

Azaroaren 25aren harira, zinema eta bertso-afaria

Azaroaren 25ean, Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira, ekitaldiak izanen dituzte herrian. Azaroaren 22an, ortziralean, 12:00etan elkarretaratzea eginen dute eskolako biribilgunean. Arratsalderako, berriz, zinema emanaldia antolatzekotan dabiltza. Azaroaren 30ean, Gazte Burrunbak bertso-afari lila egitea aurreikusi dute. Eguna hurbildu ahala, xehetasunak lotuko dituzte eta izena emateko aukera laster irekiko dute.

Erreka guraso-elkarteak jostailu-bilketa antolatu du

Erreka guraso-elkarteak abenduaren 15ean Donezteben ospatuko duten Santa Luzia ferian saltzeko jostailu-bilketa egitea proposatu du. Jostailuak zinema-emanaldiak dauden egunetan (azaroaren 10ean eta 24an, 15:30etik 16:00etara) bilduko dituzte (baina hortik kanpo ere, norbaitekin harremanetan jarriz eman ahal izanen dira). Egoera onean dauden jostailuak bilduko dira eta poltsa itxi batean eraman beharko dira. Zalantzak argitzeko: *apymaerreka@gmail.com*.

UDALA

MPS gaixotasunaren ikerketari ekarpena

Joan den urtean MPS gaixotasunaren (Mucopolisacaridosis) aurkako elkartea laguntzeko hainbat ekitaldi antolatu zituen Udalak: zinema emanaldiak, elkartasun merkatuak... Ekitaldi horietan lortutako diruari esker, ikerketan sakontzeko 2.000 euroko ekarpena egin dute.

DONEZTEBEKO FERIAK

2019 / azaroak 15

Betiko osagaiak ongi nahastea da giltza

Baztanen aurrena, Malerrekan hurrena; azaroaren 15ean ailegatuko da feria giroa Doneztebera. Bertze behin ere, *begi bat aski izanen du saltzaileak eta ehun ez ditu sobera izanen erosleak.* Menditik karrikarako bidea hartuko dute aziendek eta saltzaileen ehunka postu izanen dituzte bisitariek esperoan. Sakelak eta mingainak astindu ondotik, mokadutxoa egin edo zerbait jateko aukera ere ez da faltako. Arratsaldean, herri-kirolak tartea izanen du Ezkurra pilotalekuan eta bestazaleek egunari bukaera borobila emateko aukara izanen dute ostatuetan. Osagai horiek guztiak nahasten dituenak feria egun borobilaz gozatuko du!

ongi pasa feriak!
goldea tailerra s.l.l.
Nekazal eta herri lanetarako makinaria eta lanabesen salmenta eta konponketa
tel./fax: 948 450 060
e-mail: goldeatailerra@gmail.com
Pol. Industrial Aparan, 5
31740 Doneztebe (Nafarroa)

CASA ETXEA OSTIZ
ZAPATA-DENDA
LIBURU-DENDA
PAPERTEGIA
ZURE BETIKO DENDA
ORAIN ON-LINE ERE:
www.libreriacasaostiz.com
Parrokia 17 | DONEZTEBE
Tel-Faxa: 948 450 289
imprimircasaostiz@gmail.com

Mailposta
PUBLIZITATE BANAKETA / INPRIMATEGIA
EGUTEGIAK / TXARTELAK / KARTELAK / ORRI MUTUAK
KARTAZALAK / FOILETOAK / TALONARIOAK / BOLETOAK...
INPRIMITZEN DITUGU.
FOILETOAK / KARTELAK / EGUTEGIAK...
BANATZEN DITUGU.
(0034) 686 747 713
(0034) 648 847 167
Arribilagako bidea, 55 · 31793 NARBARTE (Na)
www·mailpostabuzoneos·com

Sampi Aragón S.L.
ONGI PASA FERIAK!

DONEZTEBEko FERIAK direla eta
Azaroaren 11tik 15era
Prezio eta aukera oso bereziak!
Auto berriak, km 0 eta 2. eskuko auto ugari egonen dira
Ez galdu aukera eta zatoz bisitatzera!
T. 948 450 354 | DONEZTEBE
sampiaragon@sampiaragon.com
www.arincar.com

Postuz postuko bueltaxka

Goizean goizetik jendea harat-honatean ibiliko da karriketan. Ez da horretarako aitzakiarik faltako. 200 salmahai baino gehiago paratuko dituzte saltzaileek; batzuk urrutitik etorriak, bertzeak eskualdekoak, denendako tokia izanen da. Eskaintza zabala jarriko dute eskura: gozoak, jakiak, artisau-lanak, lanabesak, jantziak… Saharaztan elkartekoek ere urteroko txokoa jarriko dute eliz atarian. Taloa eta gaztain erreak dastatzeko aukera ere izanen da baita ikas-bidairako dirua lortzeko ikasleek prestatuko dituzten pintxoak jatekoa ere. Bueltaxka eman ondotik, indarrak berritu nahi dituztenek ostatu eta jatetxeetan izanen dute aukera. Ferietako menu bereziak prestatzen hasiak dira dagoeneko.

Belarra jatetxea
ONGI PASA FERIAK!
Ameztia zeharkarrika, 3 · 31740 DONEZTEBE
T. 948 450 306 · www.restaurantebelarra.com

EROSKI city
ongi pasa feriak!!
T. 948 456 152
Zazpigurutze, 8 · DONEZTEBE

MALE REKA KUSTOM
KAMISETAK TXAPELAK
PAÑULUAK BORDATUAK
Gure diseinuak eta pertsonalizatuak!
ONGI PASA FERIAK
Bertako produktua, etxekoa, hurbilekoa!!!
Nagusia, 1 · DONEZTEBE · 948 451 571 · 636 885 190
male-reka@male-reka.com · Male-Reka

ALTXUNEA ERRETEGIA
IREKITA
Ortzegun eguerdian, ortziralean eta larunbatean egun osoz eta igande eguerdian irekia.
...
Kontsejo, 27 · ITUREN
T. 948 450 410

Ongi pasa feriak
Azaroak 15
DONEZTEBEKO UDALA

miren elorza
"Etxeko ekoizpena"
CARNICERÍA | HARATEGIA
ETXEKO PRODUKTUEN ATALA:
tripakiak, txuri-beltzak, txistorrak, saltxitxak, hanburgesak, enpanatuak, kroketak...
ENKARGUAK ETA ETXERA ERAMATEKO ZERBITZUA
ONGI PASA FERIAK!!
Miren 620 570 049 · 948 450 040
Merkatarien karrika, 12 · DONEZTEBE

asegi asesorías
Zergalan
• Kontabilitate zerbitzuak
• Zerbitzu fiskalak
• Lan-aholkularitza
• Aholkularitza juridikoa
• Herentzia eta Testamentuak
• Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
• Datuen babesa
• Mugaz bertze aldeko aitorpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)
www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com
Baztanberri plaza, 6 · 31700 ELIZONDO · T. 948 581 300 · F. 948 580 648
Eztegara pasealekua, 22-1 · 31780 BERA · T. 948 631 108
Eliza Kalea, 22 · 31740 DONEZTEBE · T. 948 450 395 · F. 948 451 304

Abeltzainen lanaren erakusle

Ferien sorburua den azienda feriak ere ez du hutsik eginen. Hala, Malerrekako abeltzainek egiten duten lanaren erakusle izanen da Merkatu Plazan bilduko den azienda saila. Behiak, ardiak, behorrak... egonen dira ikusgai eta tratuan aritzeko ere baliatuko dute aunitzek hitzordua.

Karrikak girotzeko musika

Musikarik gabe, nekez irudika genezake besta egun bat eta udazkeneko feriek ere badute bere doinua. Azienden hotsak eta saltzaileen ahotsak, gaita soinuarekin nahasiko dira bertze behin ere, gaitariak ibiliko baitira karrika buelta eginez.

Bortz buru eta txapela bakarra

Nafarroako I.Mailako Aizkora txapelketaren finala jokatuko dute Ezkurra pilotalekuan. Leitzako Jon Rekondo eta Ruben Saralegi, Zigako Joxean Etxeberria, Lezaungo Juan Jose Lopez eta Iker Vicente ariko dira lehian eta lau kana-erdiko, lau 60 ontzako eta bi oinbiko moztu beharko dituzte. Txapelketa 18:00etan hasiko da. Herri-kirol jaialdiaren barne, harri-jasotze erakustaldia eskainiko du Mikel Lopetegi *Urrak*. Sarrera 15 euro ordaindu beharko da.

SALDIAS HARATEGIA
"Elikagai naturalekin etxean hazitako aretxeen haragia. Etxeko txistorra"
Karrika Nagusia, 19 • 948 450 191 • DONEZTEBE

CTV
ONGI PASA FERIAK
Rosa Seminario, 15 DONEZTEBE
T. 948 450 591 M. 659 884 374
ctveterinario@telefonica.net
www.veterinariaostiz.com

TABERNA ZAHARRA
UDAZKEN-NEGUKO MODA
Gizon eta emakumeendako arropa-denda
Gortinak eta etxerako arropak (mantak, maindireak...)
Merkatarien karrika, 11
DONEZTEBE
Tel. 948 450 007

CAMPING · KANPINA
ARIZTIGAIN
RESTAURANTE · JATETXEA
FERIETAKO GOSARI eta BAZKARIAK
OSPAKIZUNETARAKO MENU BEREZIAK
Jaunartze, bataio, familia bazkariak...
SUNBILLA | 948 450 540 | www.campingariztigain.com

EDERKI tailerra
CITRÖEN ZERBITZU OFIZIALA
'Latigillo' hidraulikoen moldaketa
PEUGEOT MARKAN ESPEZIALISTAK
24 ORDUZ GRUA ZERBITZUA
ongi pasa feriak!
Leitzako bidea · DONEZTEBE · 948 450 525

Mendiburu
aziendak · tratantea
Ongi pasa feriak!
608 676 221
948 450 084
DONEZTEBE

Ongi pasa feriak!
Arnedo Inda SL
Allianz
Aseguroa
Inbertsioak
Eztegara, 26 • BERA • T. 948 625 259 • Fax 948 625 264
Parrokia, 21 • DONEZTEBE • T. 948 450 266 • M. 691 384 651
arnedo.inda@allianzmed.es

Zig Zag
T: 948 – 450317 - Doneztebe.
Ameztia ibilbidea 5 behea
info@zigzagmoda.com
Moda
Estiloa
Joerak

«Jende aunitz etortzen da ferietara eta aukera ona da guretzat sos batzuk ateratzeko»

HARITZ SAGASETA · Mendaur Institutuko ikaslea

Musika du bizipoz eta musikarekin amets egiten du Haritz Sagaseta Urrozek. Hamabortz urte izan arren, argi du zertan aritu nahi duen etorkizunean: «atzerrian musika ikasten edota musikari izaten ikusten dut nire burua. Nire ametsa musikatik bizi ahal izatea da». Musikako partiturak eta ikasgelako apunteak nahikoa ez eta bidaia-agentzien eskaintzak ere burutik ezin kenduta dabil azken aldian: «ikas-bidaia antolatzen ari gara eta nora joan ez dugu erabaki oraindik». Noranzkoa bat edo bertze izan, dirua beharko dute eta hasiak dira lanean: «pintxoak saltzen ari gara, sudaderak eta kamisetak egiten ahalegintzen ari gara eta boletoak salduko ditugu».

Ferietan aukera ona

Doneztebeko ferietan izanen dute diru-bilketa hori egiteko tartea: «bertze urteetan bezala postua paratuko dugu, bertan pintxoetaz aparte, sudaderak, kamisetak... salduko ditugu». Goiz hasiko dute feria eguna, «08:00 aldera elkartuko gara dena prestatzeko eta hortik aitzinera, bi orduko txandak eginen ditugu. Hamarrak aldera hasi eta hirurak arte espero dugu jende mugimendu handiena». Salmenta akitu ondotik, feriaz zertxobait gozatzeko tartea ere hartuko du: «giro

ongi pasa feriak!
Mendaur Motor
Leitzako bidea • DONEZTEBE | Tfnoa: 948 450 333
SUZUKI
Autoen konponketa eta salmenta | Txapa eta pintura

ederra sortzen da eta herriko dendek jartzen dituzten postuak arrunt erakargarriak direla uste dut. Jende aunitz egoten da eta honek giro berezia sortzen du».

Gazteen kezkak

Ferien antolaketak alde batera utzita, bere adineko gazte batek zein kezka dituen jakin nahi izan dugu eta aunitz ikasketekin lotuta daudela aitortu digu: «zer ikasi, gustuko dudan hori ala lana izanen dudala dakidan beste hori? Atzerrira joan beharko dut lan bila?». Baina, baditu gizartearekin lotutakoak ere, «zer gertatuko da ikasi eta gero? Langabezian bukatuko dugu? Zein izanen da euskararen etorkizuna?». Hizkuntzaren egoerak, hain juxtu, gozotik adina gazitik duela uste du: «herri handiagoetan bereziki, gaztelera aunitz erabiltzen dela ikusten dut. Baina, gero gazteak zonaldeko euskara erabiltzen ere aditzen ditut eta nire iritziz, hori garrantzitsua da». Malerrekako etorkizunaz ikuspegi baikorra du: «zonaldeko gazte aunitzek hemen gelditu nahi dute bizitzen». Baina nahi izatea ez da aski eta erraztasunak ere behar dira: «ikasteko askok kanpora joan beharra izaten dute. Goi-mailako heziketa gehiago behar ditugu inguruan». Zerbitzuak indartu beharra ere aipatu du «herri ttikietan zerbitzu gehiago eskainita, eskualdeko egoera hobea litzateke».

«Ametsa litzateke gustuko dugun horretan, eskualdean bertan, lan egiteko aukera edukitzea».

AMA KONTXA
GASOLINDEGIA

24 ORDUKO ZERBITZUA BEZEROARENTZAKO ARRETA-ZERBITZUA ITXIA DAGOENEAN
BETE DEPOSITUA MAKINA AUTOMATIKOAN TXARTELAREKIN EDO ESKUDIRUTAN

ONGI FILTRATUTAKO ERREGAIA (A Gasolioa, B Gasolioa, SP 95, Adblue) • TELEFONOA ETA FAXA • APARKALEKUA • KUTXAZAIN AUTOMATIKOA
LABETIK MOMENTUAN ATERATAKO PIZZAK ETA OGIA • ARROPA GARBIGAILUA ETA LEHORGAILUA

Ctra. N-121-A · Km 48,8 · DONEZTEBE • T. 948 450 272 · 948 450 787

Igande arratsaldean Iturengo dantzariek emanaldia eskainiko dute. ARTXIBOKO ARGAZKIA

Azken egunean aizkora izanen dute.

Besta giroa izanen dute azaroaren 8tik 11ra Aurtitzen

Ortziralean herri-bazkaria izanen dute eta larunbat gauean Kupela taldeak girotuko du plaza bazterra

ARKAITZ MINDEGIA

Lau egunez, azaroaren 8tik 11ra, hamaika ekitaldiz gozatzeko aukera izanen dute herritar eta bisitariek Aurtitzen. Ortzirale eguerdian lehertuko den etxafuegoak emanen die hasiera bestei eta patata tortilla eta postre dastaketarekin goxatuko dute besta bukaerak utzitako zaporea.

AZAROAK 8, ORTZIRALEA

12:00etan txupinazoa bota bezain laster, herriko trikitilari eta txistulariak karrikaz karrika ibiliko dira. 13:00etan pilota partidak izanen dira. Elizaldek, Eskuderorekin bikote eginda, Bereau eta Olaizola III.aren aurka jokatuko du. Pilota hotsen bukaerarekin, mahairantz abiatuko dira herritarrak. Izan ere, 14:00etan, Lizaso eta Egañak girotutako bertso-bazkaria izanen dute. Beñat eta Fernando musikariek bazkalondoa girotu bitartean, haurrek jolasak izanen dituzte. Arratsaldea biharamunera arte luzatzeko aukerarik ez dute faltako.

AZAROAK 9, LARUNBATA

10:00etan argi-soinuek ernarazitako herritarrek 12:00etan gaztetxoen arteko pilota partidak ikusteko aukera izanen dute. Goizueta eta Ezkurrak Leiza eta Mariezkurrena izanen dituzte aurrez aurre. 17:00etan Mendaur trikitixa eskolakoek emanaldi gustagarria eskainiko dute. Segidan, indarrak berratzeko, merienda eginen dute. 19:00etan, Tuku Tuku txarangalagun, pintxo-poteoan ibili ondotik, afaria eginen dute. 21:00etan dute hitzordua eta afalondoan kantu zaharrak kantatuko dituzte. 00:30ean Kupela taldearen eskutik, dantzaldian bilduko dira.

AZAROAK 10, iGANDEA

10:00etan argi-soinuek hautsiko dute goizeko isiltasuna. Goiz erdian, 11:30 aldera, haurrek aurpegiak margotzeko aukera izanen dute. 12:00etan Mikel Lasartek motozerra erakustaldia eskainiko du eta egindako eskulturak zozketatuko dituzte. 17:30ean Iturengo dantzarien txanda izanen da. Dantza gosez gelditzen direnek Tajudos del Norte mexikar taldearen erritmora dantzatzeko aukera izanen dute.

AZAROAK 11, ASTELEHENA

Eguneroko argi-soinuekin hasiko dute eguna. 11:30ean mezan bilduko dira. Mezondoan, aizkora apustua izanen da. Arratsaldean, bestak borobiltzeko, txapelketak izanen dituzte. Muslarien txanda izanen da lehendabizi. Izan ere, 15:00etan hasiko dira karta-jokoan. Ilunabarrean, berriz, sukaldariak izanen dira protagonista. Patata tortilla eta postre gozoenak sarituko dituzte. Mokadutxoak janez, eta trikitixa doinuen oihartzuna lagun dutela, akituko dituzte bestak.

2,2 milioi euro kostako da eskola berria

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak 2.235.910,87 euro inbertituko ditu Pulunpa eskola berrian. Sei gela eta jangela izanen ditu eta 2020-2021 ikasturtean martxan egotea bermatu dute.



Inauterietan zerbitzari lanetan aritzeko langile bila

Herritarrek izanen dute lehentasuna baina edonork adieraz dezake prestutasuna

ARKAITZ MINDEGIA

Iturengo inauterietako antolatzaileak prestatze-lanean hasiak dira dagoeneko. Egun horietan herritarrek ganbaran egiten dituzten otorduak prestatzeko sukaldariak behar dituztenez, lan egin nahi luketenei deia luzatu diete.

Inauteriak antolatzen hasiak dira.

Informazio gehiago

Itziar Bazterrikarekin (679 51 29 63) edo Garbiñe Olazarrekin (628 61 82 18) solastatuz edozein galdera erantzunen dutela edota lan-baldintzak azalduko dituztela adierazi dute. Argitu dutenez, herritarrek izanen dute eskaintza horretan lehentasuna, baina interesa duen orok adieraz dezake bere prestutasuna.

Herritarrak elkartzeko eguna izan dute urrian. IZASKUN ZUBIALDE

Jabier Bereau izanen da EH Bilduren alkategaia

Azaroaren 17ko udal hauteskundeetan EH Bilduk Iturenen aurkeztuko duen zerrenda osatuko dutenak zein izanen diren jakinarazi dute: Jabier Bereau Mikelarena alkategaiaren ondotik honela gelditu da zerrenda: Jose Mari Alzuri Bertiz, Jone Altxu Juanikorena, Miren Ilarregi Belarra, Pello Ariztegi Etxepeteleku, Maria Larretxea Etxeberria eta Ainhoa Bereau Altxu. Ordezkoak, berriz, Arkaitz Mindegia Baleztena eta Jagoba Manterola Ruiz izanen dira.

Pulunpa eskolan Sanduzelaikoen bisita

Urriaren 17an eskolako 3. eta 4. mailako ikasleek Sanduzelaiko eskolakoen bisita izan zuten. Elkarrekin gosaldu eta jolasean aritu ziren. Ekainean bisita bueltatzeko aukera aztertzen ari dira.

110 lagun inguru bildu dira Euskararen Eguneko kantu-bazkarian

FERMIN ETXEKOLONEA

Baserritar jantziak soinean, hamaika ekitaldiz gozatu zuten urriko bigarren larunbatean zubietar eta bisitariek. Ostiralean, pintxo lehiaketa eta mus txapelketa izan zituzten. Horrez gain mikro-ipuin eta ilustrazio lehiaketara aurkeztutako lanak eta Ameli ipuin-kontalariaren istorioak atseginez ikusi eta aditu zituzten. Yolanda Salabururen pintxoa izan zen saritutakoa eta Fermin Etxekolonearena bigarrena. Musean Leire Mariezkurrena eta Pili Telletxea izan ziren garaile. Gauean Hor dun koxka! taldearen eskutik, dantzan aritzeko aukera izan zuten. Larunbat goizean artisauek mimoz landutako lanak ezagutzera emateko aukera izan zuten. Urdaiazpiko eta gaztaren pisua asmatzeko apustu eginez, guraso elkarteak prestatutako gutiziak dastatuz edo taloa eskuartean zutela tarte ederra pasa zuten guztiek. Eguerdian plaza inguruan jendetza elkartu zen, Kukai dantza-taldeak eskainitako emanaldiaz gozatzeko. Kantu bazkarian 110 bat lagun bildu ziren eta, musika lagun, parranda luzatu ahal izan zuten.

Ia herri gehienetan zerrendak prest hauteskundeetarako

Narbarten izan ezik, gainerakoetan taldea aurkeztuko dute azaroaren 17ko hauteskundeetan

TTIPI-TTAPA

Azaroaren 17an hauteskunde eguna izanen dute eskualdeko hainbat herritan. Alde batetik, maiatzeko udal hauteskundeetara zerrendarik aurkeztu ez zen Malerrekako sei udalerritan zerrenda aurkeztu da bigarren deialdi honetan, eta hala, Elgorriagan, Eratsunen, Ezkurran, Iturenen, Oizen eta Urrozen udal hauteskundeak eginen dituzte. Bertzetik, kontzejuek ere aukera bera izanen dute. Oieregin maiatzean egin zituzten hauteskundeak, Legasan azaroan eginen dute maiatzean ez zelako inor aurkeztu eta Narbarten bigarren deialdi honetan ere ez da talderik bildu.

Iturenen Jabier Bereau alkate

Zerrenda bakarra aurkeztu da Iturenen, EH Bildurena, Jabier Bereau Mikelarena buru duela. Hala, bera izanen da alkate. Bere gibeletik honela osatu dute taldea: Jose Mari Alzuri Bertiz, Jone Altxu Jaunikorena, Miren Ilarregi Belarra, Pello Ariztegi Etxepeteleku, Maria Larretxea Etxeberria eta Ainhoa Bereau Altxu.

Elgorriagan lantaldea

Elgorriagan bederatzi lagunek lantaldea osatu dute ondoko lau urteetan Udalaren martxaz arduratzeko: Jaione Irisarri, Xabier Irisarri, Iosu Irurueta, Ane Otxandorena, Eva Martin, Xuri Martin, Abel Bastida, Itziar Martin eta Gorka Del Rio. Horietako batzuk izanen dira azaroaren 17ko hauteskundeetako hautagaiak, baina adierazi dutenez, herri-batzar edo asanblada moduan lan eginen dute, eta Herriko Etxean denak ariko dira.

Oizen azken momentuan

Urriaren 14an akitu zen zerrendak erregistratzeko epea eta egun horretan berean aurkeztu zuten taldea Oizen. Alkartasuna taldearen izenean lau lagun bildu dira: Jaime Urroz egungo alkatea eta Fidel Ariztegi, Rakel Ariztegi eta Ugutz Zelaieta.

Urrozen ere taldea egina

Urrozen ere azken momentuan osatu dute. Herriko Taldearen izenean, bortz laguneko taldea bildu da: Josu Zozaia Ubiria, Imanol Juanena Aleman, Unai Madariaga Iribarren, Patxi Urroz Telletxea eta Mikel Zozaia Ursuegi.

Eratsunen talde berria

Daona taldearen barne izen berriak bildu dira Eratsunen hauteskundeetarako: Iñaki Estanga, Mari Jose Mitxelena, Mirian Miguel Antolin, Olatz Bernal eta Ana Greño.

Ezkurran esperientzidunak

Idoia taldearen izenean, Ezkurran, Herriko Etxean esperientzia dutenak eta berriak direnek osatu dute taldea: Jaione Zabalo Juantorena, Peio Zestau Jauntorena, Jose Mari Gogortza Jauregi, Julian Gogortza Jauregi eta Bautista Mariezkurrena Mariezkurrena.

Legasan

Legasan maiatzean ez bezala, taldea osatu dute: Jesus Mari Etxart, Aintzane Martirena, Koro Ibarra eta Aritz Astibia dira zerrendan.

JAIONE ZABALO

Arriskuak saihesteko ikastaroa Ezkurran

Ezkurran, Segurtasun Planaren barne, adinekoen kontrako ekintzak saihesteko ikastaroa egin zuten urriaren 16an. Bildutakoek hainbat aholku jaso zituzten eta Ttipi-Ttapari adierazi diotenez, interes handia sortu zuen Ezkurrako eta Eratsungo herritarren aldetik.

'Berdintasunari Kanta eta Konta' Urrozen eta Legasan

Haizea Loiraren eskutik, *Berdintasunari Konta eta Kanta* tailerra eginen dute azaroaren 2an Urrozen eta 8an Legasan. 3 eta 12 urte bitarteko haurrentzako da eta ipuin batetik abiatuta, hausnarketarako bide emanez, kanta sortzeko aukera izanen dute.

Asiako liztorraren kabiak Ezkurra inguruan

Ezkurrako Udaletik adierazi dutenez, azken aldian Asiako liztorren hainbat kabi agertu dira herrian. Halakoetan, Herriko Etxera deitu behar dela oroitarazi du Udalak eta Malerrekako Mankomunitatearekin elkarlanean, talde bat bidaliko dute kabia botatzera.

IZASKUN BERTIZ

Berdintasunari kantari Beintza-Labaienen

Genero berdintasunaren inguruan konta eta kanta aritu ziren urriaren 12an Beintza-Labaienen. Gaiari lotutako ipuina kontatu zuen Haizea Loirak eta ipuinaren inguruan atera ziren hitz eta esaldiekin kanta bat asmatu zuten perkusiozko musika-tresna batzuekin. Arratsalde polita pasatu zuten.

Malerreka Kantuz azaroaren 2an Donamarian

12:00etan plazatik abiatuko dira. Urteko azken emanaldia, berriz, Donezteben izanen dute, abenduaren 7an

TTIPI-TTAPA

Malerreka Kantuz egitasmoaren aurtengo ibilbidea azken txanpan da dagoeneko.Herritarrek, urriaren 5ean Iturenen egindako saioaren ondotik, hurrengo saiorako zintzurrak bero eta musika-tresnak prest dituzte. Larunbatean, azaroaren 2an, Donamarian izanen dute herriko karrikak kantuz eta musika doinuz alaitzeko hitzordua. Ohi bezala, herriko plazatik abiatuko dira. Eguerdian, 12:00etan hasiko dute buelta eta nahi duena bertaratu daiteke.

12:00etan abiatuko dira.

Urteko azkena Donezteben

Hurrengoa eta urteko azkena abenduaren 7an, lehendabiziko larunbatean, izanen dute, Donezteben.

Lehendabiziko foroan 22 lagun bildu ziren. ARTXIBOKOA

Tokiko Agenda 21 berritzeko hirugarren foroa azaroaren 7an

TTIPI-TTAPA

Nola dago Malerreka? galdera abiapuntu hartuta, Malerrekako Tokiko Agenda 21 berritzeko prozesuaren barne, herritarrek parte hartzeko foroa egin zuten urriaren 3an. Lehendabiziko foro horretan 22 lagun bildu ziren eta hausnarketa polita egin zuten. Hilaren17an berriz bildu ziren. Aldi horretan ekintza planaz solastatu ziren, Laster hirugarren foroa izanen dute. Azaroaren 7an, heldu den ortzegunean, zehaztu dute hitzordua, eta orain artean bezala, 18:30ean eskolan bilduko dira. Bilera horretan ekintzak lehenetsi nahi dituzte.

65 urtetik goitikoek festarako aukera dute azaro hasieran

200 herritarrek jaso dute Umore Onak urtero antolatzen duen festarako gonbidapena

TTIPI-TTAPA

Urteroko moduan zer ospatua izanen dute 65 urtetik goitiko herritarrek. Umore Onak antolatuta, azaroko lehenbiziko asteburuan izanen dituzte ekitaldiak. Azaroaren 2an, larunbatarekin, 16:00etan truk eta mus txapellketak jokatuko dituzte. Igandean, azaroaren 3an, 10:00etan pilota txapelketako partidak, 11:00etan meza eta 14:00etan bazkaria izanen dute elkartean. Bazkalondoan eta aspertu arte Luis Elizegi musika joz ariko da.

F. LOIARTE

Umore Onako atalak elkartuta festa

Umore Ona elkarteak atalen eguna ospatu zuen igandean, urriaren 13an. 11:00etan hasi zuten festa. Pilotariek partidak jokatu zituzten, dantzariek kalez kale dantzatu, korokoen kantak eta Irumaita txarangaren musika lagun zituztela. Bazkaltzeko bildu ziren gero eta batzuek ederki luzatu zuten festa. Atalak elkartuz festa giro betean murgildu zen herria.

Esteban Irurtzun apezak erretiroa hartu du

50 urte eman ditu Esteban Irurtzun Baldak herrian apez eta erretiroa hartzeko tenorea iritsi zaio. Urriaren 13an eman zuen azken meza eta herritarrek egindako lana eskertu nahi izan zioten.

Zubimuxu aterpetxean kudeatzaile izateko eskaintza

Zubimuxu aterpetxearen zerbitzua kudeatzeko lizitazioa aterako du laster Udalak. Interesa dutenek 679 47 87 70 telefonora deitu dezakete informazioa eskuratzeko. Bertan emanen diete zerbitzua kudeatu ahal izateko bete behar diren baldintza guztien berri.

'Dakienak ez dakienari erakutsi' tailerra hilaren 8an

Duela bi aste burututako tailerrari segida emanez, Ainhoa Ansak etxean hondakin izateko zorian dauden gauzei aukera berri bat nola eman irakatsiko die herritarrei. Azaroaren 8an izanen da eskolako jangelan 18:00etatik 20:00etara.

Azaroaren 15ean 'Azukrearen gazi-gozoak' hitzaldia

Azukrerik gabeko astea izendatu dute azaroaren 11tik 17ra artekoa. Obesitatearen prebentzioan kontzientziatzea da helburua eta honekin lotuta, *Azukrearen gazi-gozoak* izenburupean hitzaldia eginen dute azaroaren 15ean, eskolako jangelan 19:00etan hasita.

Umore Onak antolatutako pilota txapelketa azaroan

Azaroaren 3an, igandearekin, 10:00etan emanen diete hasiera Umore Ona Elkarteak antolatzen duen pilota txapelketari. Goiko frontoian jokatuko dituzte partidak. Hurrengo norgehiagokak azaroaren 8an, 15ean eta 22an jokatuko dituzte.

Abañotik Goizuetara bide zaharrean barrena

Urriaren 19an 27 lagunek egin zuten ibilaldia. Bidean aurrera eginagatik, historian atzera egiteko aukera izan zuten, Jose Jabier Etxeberriaren azalpenekin. Hitzordu borobila izan zen eta hurrengorako gogoz dira.

Zaborrik sortu gabe erosketak nola egin landu zuten. OHIANA KALPARSORO

'Dakienak ez dakienari' erakusten segitzeko aukera

OHIANA KALPARSORO

Urriaren 10ean hasi zituzten Mendialdea Mankomunitateak *Dakienak ez dakienari erakutsi* goiburupean antolatutako tailerrak. Zaborrik sortu gabe erosketak nola egin pentsatzeko tailerra egin zuten. *Nola antolatu gure erosketak, horretarako prestatuak ez dauden saltokietan? Zer egin daiteke zaborra ekiditeko gure egunerokoan?* Izan ziren tailerrean parte hartu zutenak erantzuten saiatu ziren galderetako batzuk.

Gauzei bigarren aukera bat emanez

Hurrengo saioa urriaren 31n izanen dute. Berrerabiltze, berreskuratze nahiz zaharberritze tailer irekia izanen da eta aurrekoan bezalaxe, elkarri erakutsiz, ideiak partekatuz eta jakintza elkarbanatuz ariko dira tailerrean parte hartuko dutenak. Hondakin izateko zorian dauden altzariak, kristalezko edo plastikozko ontziak, oihal zatiren bat... erabiliko dituzte.

Mendialdea Mankomunitateak antolatutako tailerrak dira eta aurreko tailerrean bezalaxe, Ainhoa Ansa herritarra ariko da gidari lanetan. Maisuenean 18:00etan egin dute hitzordua. Animatu!

Landa Eremuko Emakumeen Eguna ospatu dute

Urriaren 15a, Landa Eremuko Emakumeen Eguna izendatu zuten duela urte batzuk eta herriko hainbat emakumek ongi seinalatua dute hitzordua egutegian. Maisuenean topaketa egin zuten eta guztira hamaika lagun elkartu ziren. *Amama* pelikula elkarrekin ikusi eta guztien artean prestatutako afari goxoa dastatu zuten. Norberaren bizipenak filmeko pasarteekin lotzeko eta hainbat pasadizo freskatzeko aprobetxatu zuten afalondoko momentua.

Urriaren 14an bilera irekia egin zuten herritarrekin. LEITZAKO UDALA

Inguruarteri buruzko hainbat proposamen bildu ditu Udalak

119 lagunen iritziak jaso dituzte eta kirolarekin eta aisialdiarekin lotutako proposamenak nagusitu dira

TTIPI-TTAPA

Udalak Inguruarte eraldatzeko eta egokitzeko laguntza jaso dezake LGP-PDR izeneko programa batetik. Aukera ona dela ikusita, herritarrei hitza eman eta espazioa zertarako erabiliko ote luketen galdegin nahi izan die. Horretarako, bilera deitu zuen urriaren 14an eta joan ez zirenei ere proposamenak egiteko aukera eman zien urriaren 17ra arte: internet bidez edo Anikoten galdetegiak beteta. Erleta Eskolako 5. eta 6. mailako ikasleek ere gaiaren lanketa berezia egin dute.

Kirola eta aisialdiarekin lotutakoak nagusi

119 proposamen bildu dituzte, 75 emakume eta 44 gizonek eginak eta horietatik 95ek (%80ak, alegia) 10 eta 39 urte artean dituzte. Mota guztietako proposamenak bildu dituzte, baina interes handiena piztu duten aukerak kirolarekin eta aisialdiarekin lotuta daudela jakinarazi du Udalak. Izan ere, gehien errepikatu direnak pump-track edo skate-park bat egin (59 aldiz aipatua), tirolina muntatu (35 aldiz) eta egoteko leku bat jartzea: mahaiak, barbakoa, zuhaitzak, iturria, komuna... dituena (34 aldiz) izan dira. Bidea moldatu, argitu edo, bide-gorri bihurtzearen alde egin dute 20 herritarrek.

Hurrengo pausoak

Udalak proposamen guztien artetik hautaketa bat eginen du; gehien errepikatzen direnak eta bideragarriak direnak bereiziz. Gero, herritarren proposamenekin Udalak osatutako zerrenda hori aditu bati emanen dio, paisajista edo arkitekto bati, horiekin proposamen bat egin dezan. Gero proiektua herritarrei aurkeztuko die, Udalak diru-laguntza eskatuko du LGP-PDRko programaren barruan eta bukatzeko, proposamena gauzatu eginen dute.

10 ETA 39 URTE ARTEKOA DA IRITZIA EMAN DUTENEN %80A

E.IRAOLA

141 espezie ikusgai Mikologialdian

Mikologialdiaren XII. edizioaren barne, Garrapo elkarteak emandako hitzaldia, larunbatean bilketa egiteko aukera eta igandean erakusketa mikologikoa izan zituzten. Leitzako mendietan bildutako 141 espezie jarri zituzten ikusgai eta eskolakoek egindako eskulanekin apaindu zuten karrapea.

Leitzako eta Aresoko ekoizleen azoka azaroaren 17an eginen dute

TTIPI-TTAPA

Bosgarrenez antolatu dute bertako produktuak eta ekoizleen lana bistaratzeko helburua duen azoka. Azaroko hirugarren igandean izanen da eta aurtengoan ere, ekoizleek eta erosleek hartu-eman zuzena izanen dute; sasoiko produktuak erosi eta hainbat animalia eta hegazti ere plazaratuko dituzte.

Eguraldi onarekin plazan eginen dute azoka eta eguraldi iragarpena ez bada aldekoa Amazabal pilotalekuan. Herriko ostalariek ere bertako produktuekin prestatutako platerak eskainiko dituzte. Antolatzaileek urte osoan halaxe segitzera animatu nahi dituzte: «bertakoa erabili eta balioan jartzea nahi genuke».

Jendetza bildu ohi da azokan.

Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea saritu dute

Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Kalitatearen XII. Saria eskuratu dute 'Nafarroako Butantxo. Zaintzeen Herria' proiektuagatik

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gizarte Zerbitzuen artean banatzen duten Kalitatearen XII. saria eskuratu du Arano, Areso, Leitza eta Goizuetako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak. Himalayako mendilerroan dagoen Butan herrialdearen eta Arano eta Goizuetaren artean hainbat antzekotasun daudela ikusita, auzokideen arteko tratu onak bultzatu eta pertsonen arteko harremanak sendotzeko, Butango bizi-filosofian oinarritzen proiektua jarri zuten martxan Urumealdean.

Aurkeztutako proiektuarekin, Butanen bezala, «Barne Produktu Gordinaren ordez, ongizatea neurtzen duten beste osagai batzuk balioan jarri eta indartu» nahi izan dituztela nabarmendu dute Gizarte Zerbitzuek: «hala nola zaintza lanak, denboraren erabilera, naturak suposatzen duen kapitala, ingurumenaren kalitatea, alderdi sozioekonomikoa eta kapital soziala».

Indarguneak abiapuntu

Proiektua bi herrien (Goizueta eta Arano) indarguneetatik abiatzen da, eta harreman positiboak eta emozioak lantzearekin lotzen da: «herriaren zoriontasun-maila handituz gero, hobeto bizi daitekeenaren uste sendoa dugu Gizarte Zerbitzuetan eta hori lortzeko ari gara lanean».

Sariaren arrazoiak

Praktika berritzailea dela ebatzi du saria eman duen epamahaiak eta Nafarroako beste herri batzuetara ere zabal daitekeela: «proiektuak herritar guztiak hartzen ditu bere baitan. Belaunaldien arteko proiektua da, diziplina artekoa-eta anitzekoa. Pertsonak eta komunitatea ahalduntzea bultzatzen du eta autogobernuaren ildoan lan egiten du». Prebentziozko osagaia ere nabarmendu dute, «esku hartzeko eta kaltea konpontzeko fasearen aurrekoa baita egiten den lanketa».

Abenduaren 13an izanen dute sari-emate ekitaldia.

Zaharberritze, berreskuratze eta berrerabiltze tailerra

Azaroaren 14an eginen dute *Dakienak ez dakienari erakutsi* tailerren bigarren saioa. Eskolako jangelan bilduko dira 11:00etatik 13:00etara. Mendialdea Mankomunitateak antolatutako ekimena da eta Ainhoa Ansa ari da saioak gidatzen.

Azaroaren 2an sokatira jaialdia Amazabalen

Nafarroako 8x8 Goma Gaineko Sokatira txapelketako hirugarren jardunaldia jokatuko dute. 17:00etan hasita, 480 kilotan Beti-Gazte, Antsoain eta Txantreako emakumezkoak ariko dira eta 550 kilotan Beti-Gazte, Berriozar, Antsoain eta Txantreako talde mistoak.

Illarregi irabazle Aramaioko kopla txapelketan

Urriaren 18an jokatu zuten Aramaioko bigarren kopla txapelketa. Xabat Illarregi herritarra fin aritu zen 100 lagunen aurrean kopla kantari. Horren erakusle da garaikurra eskuratuta bueltatu zela Leitzara.



Xabier Gartzia Gazte Parlamentuko presidente

Xabier Gartzia Azpirotz, 18 urte egin berriak dituen leitzarra, izanen da Nafarroako Gazte Parlamentuko presidentea 2019-2020 ikasturtean. Hirugarren aldiz osatu da, 47 hautagaitza aurkeztu ziren eta 1.200 boz jaso ziren.

Idazkari-kontu-hartzaile posturako lan-poltsa osatu dute

Bost urtez mantenduko dute lan-poltsa eta sor daitezkeen beharrak betetzeko baliatuko dute

TTIPI-TTAPA

Berriki egin dituzte idazkari-kontu-hartzaile posturako lan-poltsa osatzeko hautaprobak eta hiru pertsonako zerremda osatu dute. Bost urtez mantenduko dute eta sor daitezkeen beharrak betetzeko baliatuko dute.

Egur-loteak botatzen ari dira

Bestalde, Udalak jakinarazi du hainbeste burukomin sortu duen egur-loteen banaketa laster eginen dutela. Lanak bere gain hartuak zituen enpresa ari da mendian loteak botatzen. Denera 60 bat lote eskatu dituzte herritarrek.

Azaroaren 17ko azokan izanen dira herritarrak

Leitza eta Aresoko produktuen azoka egingo dute azaroaren 17an eta Alpattenea, Olatxeta eta Felipe bordako ekoizleek postua jartzekoa dute. Norbaitek bere produktuak azokan saldu nahiko balitu haueta-koren batekin hitz egin.

E.IRAOLA

'Dakienak ez dakienari' erakutsiz

Mendialdea Mankomunitateak antolatuta hondakinen murrizketa eta berrerabilpena indartzeko tailerra egin zuten. Erosketa ohiturak aldatzeko hainbat modu jarri zituzten mahai gainean eta erosketak egiteko poltsak egin zituzten. Bigarren saioa azaroaren 7an egitekoa dute. Animatu!

J.OLAZABAL

Gaztainak biltzen ibili dira haurrak eta gurasoak

Urriaren 15ean gaztainak biltzen aritu ziren Aresoko hainbat haur eta guraso. *Harri batez bi kolpe* eman zituzten: mendi-itzuliaren ondotik tripa bete eta hurrengo baterako arratsaldekoa ere ziurtatu baitzuten. Orain, hitzordua adostea falta!

Eguberrietako boletoak salgai jarri dituzte

Urtero bezala, Guraso Elkarteko kideek saski bat zozketatuko dute Eguberrietan. Euro baten truke jarri dituzte salgai eta boleto bakoitzean zortzi zenbaki idatzi dituzte. Abenduaren 22an jakingo da nor izango den irabazlea, Loteria Nazionaleko sari nagusiaren azkeneko lau zenbakiekin bat datorren boletoaren jabearentzat izango baita saskia. Boleto salmentatik ateratako dirua urtean zehar Guraso Elkarteak antolatzen dituen ekintzak ordaintzeko erabiliko dute.

Bazkideen Egunean 570 lagun bildu dira Gorraizen

Marrazki eta pintura, argazkilaritza eta literatura-lehiaketako sariak banatu dituzte

PABLO IRASTORTZA

Elkarteko 570 kide inguru bildu ziren urriaren 24an Gorraizen ospatu zuten Bazkideen Egunean. Meza entzun ondotik, momentu hunkigarriak bizi zituzten.

Elkarteko presidenteak, Jose Luis Legarrak, elkartearen helburuak, lana, kezka... ekarri zituen gogora. Horrekin batera, Federico Moreno-Torroba eta Paco Pascual nabarmendu zituzten; lehendabizikoa, Nafarroako Koruen Federazioak emandako urrezko dominagatik; eta bigarrena literatura sailean bi sari irabazteagatik.

Momentu hunkigarriak

Ondotik, marrazki eta pintura, argazkilaritza edo literatura lehiaketetako sari-banaketa egin zuten. Bertzalde, aurten 100 urte egin dituen Asun Elizalde, 85 urte bete dituztenak, 60 urte eta 50 urte ezkondurik damatzaten bikoteak omendu zituzten. Oroigarri bana eman zitzaien, bertan zeuden familiako eta lagunen txalo zaparrada ederraz osaturik.

Bazkarian giro ederra

Besta guziak mahai inguruan bukatzen direnez, Gorraizko Gazteluan bildu ziren gero, bazkariaz gozatzeko. Oraindik, ilusioa, animoa eta ongi pasatzeko gogoa pil-pilean dutela erakutsi zuten bertze behin elkarteko kideek. Izan ere, Joxe Angelen musikak girotutako dantzaldia motz egin zitzaien. Egun borobila igaro ondotik, 19:00 aldera poz-pozik bueltatu ziren, berriro autobusez, bakoitza bere txokora. Datorren urtera arte!

OMENDUAK

60 URTE EZKONDUTA

Angustias Gama - Francisco Moreno (Bera)

50 URTE EZKONDUTA

Maria Teresa Bayones - Jose Antonio Bergara (Arraioz)
Delia Telletxea - Luis Retegi (Eratsun)
Maria Josefa Rekarte - Gervasio Iñarrea (Erratzu))
Maria Carmen Mindegia - Juan Montero (Erratzu)
Maria Soledad Urroz - Francisco Javier Etxenike (Irurita)
Maria Jesus Sukuntza - Miguel Bildarraz (Leitza)
Maria Jesusa Erasun - Jesus Zabaleta (Leitza)
Maria Jose Telletxea - Francisco Portu (Lesaka)
Maripaz Maritxalar - Juan Fernandez (Lesaka)
Maria Angeles Zozaia - Juan Irazoki (Lesaka)
Dolores Albizu - Manolo Arozena (Lesaka)
Maria Carmen Zozaia - Jose Maria Sainz (Igantzi)
Dolores Irazoki - Joxe Arburua (Zugarramurdi)

100 URTE

Asun Elizalde Danboriena (Etxalar)

85 URTE

Ana Maria Gaztelu (Aniz)
Bonifacio Oskoz (Arantza)
Julita Iturria (Arantza)
Maria Ascension Zinkunegi (Areso)
Angustias Gama (Bera)
Antonio Aranburu (Bera)
Francisco Moreno (Bera)
Josefina Iglesias (Bera)
Maria Natividad Mitxelena (Bera)
Pakita Burguete (Bera)
Cecilia Belarra (Doneztebe)
Felisa Maia (Elbete)
Eusebio Ballarena (Elizondo)
Maria Teresa Etxeberria (Elizondo)
Pedro Beraza (Eratsun)
Manuel Agirre (Etxalar)
Francisco Telletxea (Ezkurra)
Anttoni Eskudero (Goizueta)
Jose Ramon Arozena (Goizueta)
Milagros Apezetxea (Goizueta)
Asuncion Arozena (Irun)
Maria Corpus Irigoien (Irun)
Eusebio Maritorena (Leitza)
Feliciana Zabaleta (Leitza)
Felipa Aierdi (Leitza)
Jose Luis Martinez-Barranco (Leitza)
Miguel Bildarraz (Leitza)
Miguel Barriola (Leitza)
Miren Olabarri (Leitza)
Miguel Lasarte (Leitza)
Maria Angeles Mikelarena (Lesaka)
Eugenio Ariztegi (Oiz)
Miguel Lizasoain (Oiz)
Isabel Juanenea (Saldias)
Maria Teresa Elizalde (Saldias)
Martin Urrutia (Saldias)
Consuelo Fernandez (Sunbilla)
Engraxi Urriza (Zubieta)

50 URTE APAIZ

Pedro Apeztegia (Aurtitz - Costa Rica)

UTZITAKO ARGAZKIA

54 mendizale Bertiz Natur Parkean

Ehiztariak inguruko mendietan lasai ibil daitezen, elkarteko mendizaleek urriko ateraldia Bertizera egin zuten. J.A. Berrueta eta Ixak Altzugarai izan zituzten gidari. 54 mendizaleek, aparkalekutik abiatuta, Aizkolegiko pistan barrena Suspiroko bidaxkaruntz jo zuten eta Iturrunburutik hasmentan bukatu zuten ibilbidea. Azaroaren 19an Urdazubin dute hitzordua.

Bideo-edizio lantegia azaroaren 8an eta 9an Elizondon

Sei orduko ikastaroa izanen da eta bi egunez bilduko dira, ostiralean, arratsaldez; eta, larunbatean, goizez

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak eta Euskarabideak antolatutako IKT ikastaro-zikloaren barne, azaroaren 15a arte hainbat txokotan Youtube, robotika, musika aplikazioak, pribatutasuna eta blogak izanen dituzte hizpide.

Elizondon, erraterako, azaroaren 8an eta 9an *Youtuber izateko mila modu: bideo-edizio ikastaro-lantegia* izanen dute. Sei orduko lantegia izanen da. Azaroaren 8an, ortziralean, 17:00etatik 20:00etara; eta 9an, larunbatean, 10:00etatik 13:00etara bilduko dira, Lanbide Eskolan.

Robotika ikastaroa Beran

Ez da eskualdean eskainiko den ikastaro bakarra. Izan ere, azaroaren 7an eta 14an, bi ortzegunez, *Robotika ikastaro-lantegia* izanen dute Beran, Beralandetan. Saio horiek 17:00etatik 20:00etara izanen dira.

Ikastaro horiei buruzko informazio gehiago nahi dutenek edo izena eman nahi dutenek *www.sareaneuskaraz.eus* atarian eskuratu ahal izanen dute.

UTZITAKO ARGAZKIAK

Parte-hartze handia Gartzaingo bestetan

Urriaren 11tik 14ra besta giroan murgildu ziren gartzaindarrak. Larunbateko herri-afarian inoiz baino gehiago bildu ziren, 80 lagun. Txapelketak, jokoak, otorduak, musika... girorik ez zitzaien falta izan. Dagoeneko hurrengoaren zain daude.

Joan den urtean Hamaikakoaren aurkezpenean. ARTXIBOKOA

Saioa Iraola izanen da hizlari. MRAFUNDAZIOA.EUS

Euskaraldiaren aurkezpena eta formazio-saioa azaroaren 6an Elizondon

TTIPI-TTAPA

Udazkenean sartuta, herritarrak Euskaraldiari begira hasiak dira. Batzordeak lehendabiziko bilkurarako data zehaztua du dagoeneko. Azaroaren 6an, heldu den asteazkenean, dute hitzordua eta Arizkunenea kultur etxean bilduko dira, 19:00etan. Adierazi dutenez, bigarren edizio honen aurkezpena ez ezik, formazio-saioa ere eginen dute. Aurten, Euskal Herri osoko herritarrei hizkuntza-ohiturak aldatzen jarraitzeko; eta era guztietako entitateei beraien funtzionamenduan urrrats zehatzak emateko bultzaldia eskainiko du Euskaraldiak.

'Euskara eta feminismoa' hitzaldia hilaren 15ean gaztetxean

TTIPI-TTAPA

Baztango Talde Feministak antolatutako Feminikasten 2.0 tailerren barne, urriaren 19an, egitekoa zuten autodefentsa tailerra bertan beheiti gelditu zen. Izan ere, izena emana zuten hainbat lagunek ez zutela joaterik izanen adierazi zuten.

Aurtengo jardunaldia azaroaren 15ean, ortziralean, akituko dute, hitzaldi batekin. *Euskara eta feminismoa: genealogiatik egungo erroketara* goiburupean bilduko dira. Baztango gaztetxean. 19:00etan dute hitzordua eta Bilgune Feministako kide den Saioa Iraola izanen da hizlari.

Sukaldaritza tailerra izanen dute azaroan Lekarozen

Bi orduko hiru saio izanen dira eta Elbeteko posadako sukaldaria izanen da gidari

TTIPI-TTAPA

Baztango Udaleko Kultura Batzordeak antolatuta, sukaldean aritzea maite dutenendako hiru saio izanen dituzte azaroan Lekarozen.

Belen Urrutia izanen da gidari.

Azaroaren 12an, 19an eta 26an

Elbeteko posadako Belen Urrutia irakasle dutela, hilaren 12an, 19an eta 26an bilduko dira, 18:00etatik 20:00etara. 16 urtetik goitikoei bideratutako tailerra izanen da eta handia izan da sortu duen interesa. Horren erakusle da, eskaintzen ziren plaza guztiak bete izana.

Horrenbertzez, hamabi pertsona izanen dira zartaginak eta kazolak sutan jarri eta gutiziak prestatzen ikasiko dutenak.

Arizkun Rock jaialdia laguntzeko zozketa antolatu dute

TTIPI-TTAPA

Joan den urteko arrakasta ikusirik, aurten ere, Arizkun Rock jaialdia laguntzeko zozketa antolatu dute. Musikariei, kolektiboei eta ostalariei esker, produktu andana lortu dute: dron batekin nahi den argazkia formatu digitalean; Gontxean bi pertsonendako gau bat; Non Servium taldeko posterra; Hatortxu Rockeko bi sarrera... Txartelak bi eurotan salgai daude Dolaretxean, Estankoan, Etxeberrian, Okindegian, Ordokin eta Zubi Puntan. Irabazlea abenduaren 9an jakinaraziko dute.

INFERNUKO ETA KORTARIKO GASNA

Kortariko gasna, Euskal Herriko onena

Urriaren 13an Idiazabalen jokatu zen Euskal Herriko ardi gazta txapelketa eta urriaren 16an Ordiziakoa irabazi zituen Lekarozko Kortaria gasnategiak. Ordiziakoan, gainera, azken hamar urteetako txapeldunek parte hartu zuten eta Arburuak lehendabiziko eta hirugarren sariak lortu zituen.

ARANTXI ETA VIRGINIA

Pilarika ermita bisitatu dute zigatarrek

Zigatarrek Egozkuko parajean dagoen Pilarika baseliza bisitatu zuten. Eguraldia lagun zutela, herritik prozesioa abiatu, meza entzun eta ondotik luntx goxoa (Baztan zopak, patata tortilla, pintxoak, kroketak...) jateko aukera izan zuten, musikaz lagundurik ermita inguruan.

MARMOLES SOULE
www.marmolessoule.com
LAPIDAK
PANTEONAK
KANPOSANTUAK
HARRI LANAK
ESKULTURAK
ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatua
Dibortzioak, herentziak, alokairuak, alkoholemiak...
T. 948 581 468 | M. 630 354 818
Santiago, 59 2C ELIZONDO

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ
T. 948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com
HARRI LAN, S.L.
TALLER DE CANTERIA
EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU
BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE

Udalak obren kontrola zorroztuko du, ziurtagiriak eskatuz. JM ONDIKOL

Hondakinen kudeaketa ekonomia zirkularrera begira

Udalak, Askaperekin sinatu duen hitzarmenari esker, obra ttikietako hondakinen doako kudeaketa eskainiko die herritarrei

TTIPI-TTAPA

Baztanen hainbat urtez zerbitzua eskaini duen obra hondakinen udal zabortegiaren aktibitatea eten dute. Iruritako Irular parajeko herri-lur honetara ia 30 urtez bota dituzte obra-hondakinak. Zabortegi hauek ez dute egungo legedia betetzen eta Udalak azken urteak itxiera planifikatzen eta obra hondakinendako irtenbide jasangarriagoak bilatzen jardun du: «erraten ahal dugu, horretarako lehen pausoa eman dugula. Pauso berri honekin ekonomia linealeko eredutik ekonomia zirkularrerako urratsa eman dugu», aipatu zuten urriaren 10ean egindako aurkezpenean.

Hondakinendako transferentzia eta tratamendu-planta

Udal obra zabortegiaren ixtearekin batera hau ordezkatzeko obra hondakinendako trasferentzia- eta tratamentu-planta (pribatua) jarri dute martxan. Oronozen, Baztango herri-lur batean dagoen harrobi bateko instalazioak eta aktibitatea aprobetxatu eta sinergiak sortuz, obra hondakinen transferentzia- eta tratamentu-planta bat egin dute.

Oronozko Askape harrobia ustiatzen duen enpresak duela urte batzuetatik hona ez du harririk ateratzeko baimenik eta bere aktibitatearekin segitu ahal izateko Iruñerritik ekartzen dute harria. Horretarako kamioiak Baztandik hutsik joan eta harriz beteak itzultzen dira. Instalazio horietan bertan berriki martxan jartzea ahalbidetu zaien aktibitate osagarriari esker, obra hondakinak jaso eta hemen tratatu ezin direnak Iruñera egiten dituzten bidaietan eramaten dituzte. Eskonbro garbiarekin aldiz, Askapen bertan dituzten harri matxakadorak aprobetxatuz tratatu eta 2. mailako materiala edo material birziklatua lortzen dute, zikloa itxi eta Baztanen bertan edo inguruetan erabili ahal izateko agregakin birziklatua lortuz.

Honela bada, eskualdean obra hondakin garbiak tratatzeko lehen planta jarri da martxan eta gainerako hondakinentzat bilketa eta trasferentzi puntua izanen da.

Torralba artistaren pintura-erakusketa azaroaren 11tik 24ra Arizkunenean

TTIPI-TTAPA

Margolanak ikustea maite dutenek azaroan eta abenduan Elizondoko Arizkunenea kultur etxean aukera bikoitza izanen dute. Izan ere, J.L. Torralba eta Zoe Bray artisten pintura-erakusketak antolatu dituzte. Lehendabiziko erakusketa azaroaren 11n irekiko dute eta 24ra arte egonen da ikusgai; bigarrena, berriz, azaroaren 29tik, hondarreko ortziraletik, abenduaren 9ra arte bisitatu ahal izanen da. Batean zein bertzean artistek egindako margolan ederrez gozatu ahal izanen da.

UTZITAKO ARGAZKIA

Sagar-dastaketa Gamioxarrean

Jo ala Jo elkarteak antolatutako Larrazken Kulturalaren barnean, bertako sagarren dastaketa egin zuten Gabriel Durrutirekin urriaren 17an, Arizkungo Gamioxarreko dolarean. Horien jatorri historikoa ezagutzeko eta dastatzeko jende dezente bertaratu zen.

Kilemaren eskutik kontzertua azaroaren 10ean Arizkunenean

Kilema kantari eta musikagileak kontzertua eskainiko du azaroaren 10ean, igandean, Arizkunenea kultur etxean. 19:00etan dute hitzordua eta bertaratzen direnek ez dute sarrerarik ordaindu beharko. Kilemak, hainbat musika tresnen bidez, Madagaskarreko magia eta arima erritmikoa plazaratuko du. Hamabortz urte baino gehiagoko ibilbidea egin duen musikariak hiru disko kaleratu ditu (*Kaa Malisa, Lavi-Tani* eta *MENA*) eta hamaika jaialditan parte hartu du.

Film-dokumentala azaroaren 8an Arizkunenean

Jeune Bergère (*Artzain gaztea*) film-dokumentala ikusteko aukera izanen dute azaroaren 8an, ortziralean, Arizkunenean. 19:30ean hasiko da emanaldia. Jatorrizko bertsioan, frantsesez, pantailaratuko den arren, azpitituluak euskaraz izanen ditu. Filmak Stephanieren, sortzez paristarra den ama ezkongabearen historia kontatzen du. Ametsaren bila, Normandiara joanen da eta kontinenteko gatz belardien erdian artzantza bide duela, poztasun eta zailtasunak ezagutuko ditu.

Urriaren 16an egin zuten agerraldian. LAB

LABek zahar-etxeko lan-baldintzak ez duintzea salatu du

«Plaza kontzentratuak dituzten zahar-etxeetan herrialde mailako antolakuntza» behar dela adierazi dute

TTIPI-TTAPA

LABek, duela hilabete batzuk, «zahar-etxearen pribatizazioarekin akitzeko aukera ukatu izana» gaitzetsi zuen: «zahar-etxeko patronatua osatzen duten bederatzi kideetatik zazpik eman zuten botoa eta EH Bilduko ordezkaria izan zen publiko egitearen aldeko botoa eman zuen bakarra. Horrekin garbi gelditzen da ez langileek ezta erabiltzaileok ere ez dugula inongo babesik izan patronatuaren aldetik». Horrekin batera, «hainbat arrisku» aurreikusi zituen. Urriaren 16ko agerraldian aipaturiko «arriskuak errealitate bihurtzen ari direla» adierazi zuten. Azken urteetan sektoreak izandako bilakaera ageriko egin zuten, Gobernuak diruz lagundutako zahar-etxeetan «herrialde mailako antolakuntza eta langileen guttieneko baldintzak bermatzeko neurri batzuk» behar direla adieraziz. Zentzu horretan, egun enpresa kudeatzen duen IDEA enpresaren ibilbidea gaitzetsi du sindikatuak: «IDEA enpresak alde bakartasunez eta Udalari inongo berririk eman gabe, plaza horietara ez aurkeztea erabaki zuen».

Horren harira, honela azaldu du: «plaza kontzertaturik eduki ezean, ez dago aipaturiko guttieneko baldintza horiek bete beharrik eta erabiltzaile batzuentzako karga ekonomikoa handiagoa da». Jarrera horrekin «langileen baldintzak duindu nahi ez izatea» eta «legedi orokorretik at funtzionatu nahi izatea» leporatu dio enpresari: «argi utzi dute langileak eta erabiltzaileak bost axola zaizkiela, beraiendako garrantzia diruak du». Hortaz, zahar-etxearen kudeaketa berriz publikoa izateko eskatu dute: «interes pribatuak segitzen duen bitartean zerbitzua eta baldintzak txarrak izanen dira».

UTZITAKO ARGAZKIAK

Kataluniarrei elkartasuna adierazi diete

Zugarramurdi, Urdazubi eta Baztango eskola ttikiek, batetik; eta Lekarozko institutuko irakasleek bertzetik, kataluniarrei babesa adierazteko elkarretaratzeak egin dituzte. *Askatasuna. Erreferenduma ez da delitua* lelopean bildu dira.

Aire zabaleko pintura lehiaketa igandean Elizondon

Udazken kolorez edertutako paisaiak margotzeko, Jose Mari Apezetxea aire zabaleko pintura lehiaketa izanen dute azaroaren 3an, Elizondon. 08:30ean hasiko da lehiaketa eta lanak 14:30erako aurkeztu beharko dira. Informazio gehiago: 744.zk. edo 636 97 42 98.

Suakai taldearen kontzertua igandean Arizkunenean

Folk Ametsetan zikloaren barne, antzerkia, zinema, musika eta poesia uztartzen dituen Suakai taldearen *Raíces* lanaz gozatzeko aukera izanen dute azaroaren 3an Elizondoko Arizkunenea kultur etxean. 19:00etan hasiko da emanaldia eta sarrera doan izanen da.

Klima larrialdi eta krisi ekosozialaz solasaldia hilaren 9an

Klima larraldia eta krisi ekosoziala izanen dute hizpide azaroaren 9an, larunbatean, 12:00etan Elizondoko Arizkunenea kultur etxean. Luis Gonzalezek, zientzia kimikoetan doktorea denak eta *En la espiral de la energia* liburuaren egileak, eskainiko du hitzaldia.

Bailableak azaroaren 10ean Elizondoko plazan

Baztango Dantzariak eta Elizondoko Gaiteroak antolatuta, muxikoak, jotak, larrain-dantzak... dantzatzeko aukera izanen dute azaroaren 10ean, igandean. Elizondoko plazan (euria eginez gero, Braulio Iriarte frontoian) elkartuko dira, 12:30ean.

Maria Jesus Zugarramurdik eta Ansa alabek osatzen dute taldea. KRONIKA

Artantxuriketan taldea azaroaren 17an Elizondon

Arizkunenea kultur etxean 19:00etan izanen da saioa eta sarrerarik ez da ordaindu beharko

TTIPI-TTAPA

Baztango Udaleko Kultura Batzordeak antolatuta, Aranoko Maria Jesus Zugarramurdik eta haren hiru alabek –Arantxa, Ainhoa eta Maider Ansak– osatzen duten Artantxuriketan taldeak emanaldia eskainiko du azaroaren 17an, hirugarren igandean, Elizondon. Arizkunenea kultur etxea izanen dute bilgune eta 19:00etan hasiko da saioa. Laukoteak euskararen ahozko tradizioari buruzko saioa eskainiko du, udalerri nafar eta gipuzkoarretan bildutako kontakizun eta kantak ardatz direla. Sarrerarik ez da ordaindu beharko.

Lau kanadiar pasabide egin ditu. UTZITAKOA

Udalak nekazal azpiegituretan 70.127,58 euro inbertitu ditu

TTIPI-TTAPA

Aurtengo udan ere, bailarako nekazaritzarako azpiegiturak hobetzeko lanak egin ditu Udalak, denera, 70.127,58 euro inbertitu ditu iskindegiak, korlea eta kanadiar pasabideak berritu eta beharrezkoak zirenak egiteko.

Batetik, Otsondoko lepotik Urdazubi alderako errepide bazterreko hesiak berritu ditu, denera zortzi kilometro. Modu berean, Gorramakil aldera, artzainek eskaturik aziendendako korlea egin du. Lan horiek Migel Maria Rekartek egin ditu eta 26.343,89 eurotan.

Bestetik, aurten lau kanadiar pasabide egin ditu: Gartzaingo Jaimesaltsun –Urballoko bidean-; Bozateko Nahasen eta Beltz errekan; eta Azpilkuetan Larroingo borda ondoan. Lan horiek Harri-Lanek egin ditu, 40.142,96 eurotan.

Modu berean, Erdizeko Bihotzeko ziloko askaren inguruan 100 metroko hetsikura egin da; lan hori Lanalekomek egin du, 933,99 euroko kostuarekin.

Egin beharreko lanen idazketa eta obren zuzendaritza Mendikoak egin ditu eta horretarako 3.640,79 euro bideratu dituzte.

JM ONDIKOL

Mutuerreka besta ospatu dute Amaiurren

Bigarren urtez, Mutuerreka besta ospatu zuten Amaiurren urriaren 12an. baserrietan sortutakoak eta beraien ondorengoak elkartu ziren. Gaur egun baserrietan bizi direnekin batera, Amaiurtik, Baztango bertze herrietatik, Iparraldetik, Iruñetik eta Ameriketako Estatu Batuetatik ere jendea joan zen eta guztira ehun bat lagun elkartu ziren.

Gau beltzaren ohitura berreskuratuko dute urriaren 31n Anizen

Kalabazak ireki, aurpegiaren forma eman eta herrian barna paratu ondotik, lehengo kontuak adituko dituzte

MAITANE MARITORENA

Ortzegunean, urriaren 31n, gau beltzaren ohitura berreskuratzekoa dugu Anizen. Izan ere, herriko adineko jendearekin solastatu eta garai batean urriaren 31n eta azaroko egun beltzetan egiten zutenaren berri eman digute.

50eko edo 60ko hamarkada artio iraun zuen ohitura

Kalabazarik onenak hartu (bertzeak zerriendako izaten baitziren) gaineko puska ireki, eta boneta gisa paratzen zuten. Begien eta ahoaren forma emanik, barnean kandela sartzen zuten. Kontuan hartuz garai horietan ez zegoela farolarik, argitasun polita ematen zuen iluntasunean. Ohitura honek 50eko edo 60ko hamarkada artio iraun zuen Anizen.

KANPOKO OHITURA ERROTU ORDEZ BERTAKOA BERRARTU DUTE

Bertako ohiturei eustea helburu

Ikusirik gurea ez den Hallowen bestak bertan errotzeko arriskua baduela, atzerriko ohiturak errotu beharrean bertakoak berreskuratzea pentsatu dute Anizen.

Horretarako, ortzegunean, urriaren 31n, ilunabar aldera haur eta gurasoak bilduko dira.18:00 aldera eginen dute hitzordua. Lehen egiten zen bezala, kalabazak ireki aurpegiaren forma eman eta herrian barna paratuko dituzte.

Lehengo kontuez solastatzeko tartea

Ondotik, zenbait etxetarat joanen dira, adineko jendearekin egonen dira lehengo kontuak aditzen eta bizipen horiek ezagutzen. Eguna akitzeko, su bazterrean istorioak kontari arituko dira gurasoak, kerrenean xingarra erretzen duten bitartean.

Gaueko pertsonaia mitologikoa kontuan hartuz, *Eguna egunekoendako eta gaua gauekoendako* izena paratuko diote aniztarrek berreskuratu duten ohitura honi.

Jende aunitz bildu zen iaz José Bovék emandako mintzaldian. ARTXIBOKO ARGAZKIA

Klima larrialdia eta krisi ekosoziala Landa Begiradak-eko gai nagusia aurten

TTIPI-TTAPA

Bigarren urtez segidan Landa Begiradak gogoetaldia eginen da Baztanen eta aurtengo gonbidatu nagusia Luis Gonzalez Reyes zientzia kimikoetan doktorea izanen da. Gonzalezek *Klima larrialdia eta krisi ekosoziala. Etorkizuneko alternatibak* izenburua duen solasaldia eskainiko du azaroaren 9an, Elizondoko Arizkunenean, 11:30ean.

Jardunaldien barnean bertze hitzordu aipagarria *Jeune Bergère* (artzain gaztea) filmaren emanaldia izanen da, azaroaren 8an, 19:30ean Arizkunenean. Film honetan bere ametsen bila hiria alde batera utzi eta Normandiako herri batean artzaintzan hasten den ama ezkongabearen bizia kontatzen da. Filma jatorrizko bertsioan frantsesez emanen da, euskaraz azpititulatua.

Landa Begiradak jardunaldia Baztango Udalak iaz hasi zuen. Ordukoan José Bové nekazari-sindikalista eta europarlamentari frantziarraren mintzaldi jendetsua egin zen, bertzeak bertze.

Aurtengo jardunaldiaren antolaketan Baztango Udalaz gain Hazitik Hoziek eta Energia Onak ere parte hartu dute. Landa begiradaken helburua landa eremuari buruzko gogoeta kritikoa pizteko elkargunea izatea da. Adierazpide desberdinen bidez oraingo garai eta jendartean orokorrak diren hizpideak landa-eremuen berezitasunetik aztertzeko.

Aurtengo arialdia mural baten margoketarekin akituko dute, *Sistema aldatu, Ez klima* erraten duena. Hori egiteko hitzordua azaroaren 16a izanen da, 11:00etan Elizondoko frontoi zaharrean.

BRIKO
LIMPIEZA, SL
MOTA GUZTIETAKO GARBIKETAK:
etxeak
landetxeak
lokalak
komertzioak
enpresak
...
konfidantzazko zerbitzua
T. 608 016 052
San Andres, 66 · NARBARTE
(Sarrera Legasatik)

ZUGARRAMURDI

Korrontziren 'Nafar Loreak' kontzertuan itxura eder hau hartu zuten lezeek. UTZITAKO ARGAZKIA

Udazkena xarmaz eta planez gainezka ailegatu da herrirat

Pilare egunean 1.300 lagun sartu ziren lezerat eta 412 Sorginen Museorat eta ordutegi berriarekin hasiak dira

TTIPI-TTAPA

Sasoi berriak Zugarramurdiko paisaiaren koloreak aldatu ditu, egunak murriztu eta gauak freskatu dira. Baina honek ez du erran nahi herri honetako eskaintza turistikoa eta kulturala baretu dela. Txotxongiloak irailean eta Korrontziren kontzertuaren ikuskizuna urrian izan genituen. Aitzinera begira, hazilean Logroñon ospatuko den 1610eko Fede Autoaren oroimena eta besta egunetan eskainiko diren ordutegi zabalagoak agendaren erritmoa markatzen ari dira.

409. urteurrena

Hazilan, begirada Logroñorat zuzenduko da eta hor ere, Zugarramurdik protagonismo handia hartuko du. Hain zuzen ere, duela 409 urte Errioxako hiriburuan ospatu zen Fede Autoan Zugarramurdiko 31 herritar sorgin izateaz epaitu zituzten eta horietatik 11 erre zituzten. Gertakari trajiko hauen oroimenez, ekimen anitz ospatuko dira hilabete honetan.

Adibidez, Errioxako Liburutegia *1610eko Fede Autoa, Zugarramurdiko sorginen erretzeko prozesua* erakusketaren egoitza izanen da. Eraikin honetan ere, hazilaren 7an, hitzaldien sorta bat izanen da. Toti Martinez de Lezeak (*La bruja*) eta Mikel Azurmendik (*Las brujas de Zugarramurdi*), bertze historialari ezagunen artean, parte hartuko dute. Hazilaren 8an, La Merced Kulturagunerat aldatuko da saioa; Marcelino Izquierdok *La peste negra* hitzaldia eskeiniko du, ondotik, Federico Soldevilla 1610eko Fede Autoari buruz solastatuko da.

Errioxako liburutegia egoitzarik egokiena izanen da Evidencia Médica argitaletxearen sorginen gaineko bi liburu aurkezteko. Alde batetik, hazilaren 15ean, Javier Álvarez Caperochipi mediku nafarrak *Brujas, historia natural: alucinógenos, afrodisíacos y venenos* liburua aurkeztuko du eta Iñaki Uztarrozek *El brujo de Bargota* liburua aurkeztuko du hazilaren 28an.

Pilare Eguna eta Omiasainduko Zubia

Urria arras hilabete polita da Xaretan. Naturaz profitatzerat etortzen den bisitarien joan-etorria mantentzen da, batez ere, besta egunetan. Adibidez, Pilare Egunean, 1.300 bisitari lezerat sartu ziren eta 412 Sorginen Museorat. Erdia baino gehiago Euskal Herrikoak ziren, bizkaitarrak batez ere (%28a).

Omisaindu eguneko zubirako Sorginen Museoak eta Lezeak ordutegi berezia eskainiko dute: orduaren aldaketaren ondotik, Lezea 17:30ean hetsiko da, goiz ilunduko baitu. Hazilaren 1ean eta 2an, beraz, Lezea 11:00etatik 17:30era eta Sorginen Museoa, 11:00etatik 19:30era egonen dira zabalik.

URDAZUBI

Dantxarineko Pintxoaren Hamabostaldia azken txanpan

TTIPI-TTAPA

Dantxarineko Pintxoaren seigarren hamabostaldia egiten ari dira urriaren 15etik 31ra bitarte. Hamabortz egunez Dantxarineko bentetako jatetxeek pintxoak eskaintzen dituzte eta sariak izanen dira, pintxo onenaren bozketan parte hartzen dutenendako.

Mugaren bi aldeetako sukaldari ospetsuak izanen dira epamahaian eta pintxo onena izendatuko dute. Dantxarineko pintxo onenaren aukeraketan parte hartzen dutenen artean Mutrikuko Haitzalde Landa-Turismoan asteburuko egonaldia zozketatuko dute. Parte hartzeko Bentetan egonen diren boletoak bete eta bertan utzi beharko dira.

Bertzalde, Urdax-Urdazubiko Facebook orrialdean botoa emanez gero jatetxe irabazlean bi pertsonentzako bazkaria irabazteko aukera ere izanen da.

IÑIGO IMAZ

Kontrabandisten bi lasterketak arrakastatsuak

Kirol orrialdeetan bada informazio gehiago, baina urriaren 19ko gaueko lasterketa eta biharamuneko 22 kilometrokoa arrakastatsuak suertatu ziren. Korrikalariak gustura gelditu ziren gazteen eta udalaren antolaketarekin.

BISITATU

URDAZUBI-DANTXARINEA

PLANIK ONENA DA!

100 saltoki baino gehiago zure eskura

Moda, aisialdia, pintxoak, lurrin-dendak, likoreak, janari-dendak, arropak, oroigarriak, bitxiak, jatetxeak...

BENTAK ZABALIK DAUDE URTE OSOAN ZEHAR ASTEKO 7 EGUNETAN

Eta honako hauek bisitatzeko aukera eskaintzen duen Nafarroako herri eder tipiko bat:

Lezeak, museoa, monasterioa, erakusketak, ibilbideak, errota…

www.urdax-dantxarinea.com

Urdax-Urdazubi Dantxarinea
ABIERTO A TODOS LOS GUSTOS - GUSTU GUZTIENTZAKO ABERIA
www.urdax-dantxarinea.com

Dantxarinea
www.urdax-dantxarinea.com

Subvencionado por el Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Nafarroa Erresuma
Reyno de Navarra

Ideia izan eta artelana sortu arte Ttitto Aguerrek egiten duen bidea ikus daiteke erakusketan. P. BASTRES

Ttitto Aguerreren 'Mugak' larunbata arte ikusgai

Urriaren 10an estreinaldia eginda, mota ainitzetako lanez gozatzen ahal dute ibiltariek

PIERRE BASTRES

Larreko-ko gune nagusian kokatu du bere erakusketa Ttitto Aguerre sortzaile senpertarrak, eta eremu zabala izanagatik ere, haren lan eta obrek ederki betetzen dute. Gehienak zizelkadurak dira, zurezkoak eta metalezkoak. Horiez gainerat margolan zonbait paretetan dilindan ezarri ditu. Artistarekin mintzatuz, garbiki adierazi du zoin den ideiatik artelanerako bidea: «Hasteko, inspirizionea izadian edo naturan atsemaiten diat nagusiki: lurpekoak edo lur gainekoak: mineralak, izaki bizidunak, zuhaitzak, etab.. Bertzalde, ene lanetan, bizitzan hautematen diren lau urrats itxuratzen ditiat: bi entitateen arteko harremana erakusten dutenak: elkarretarik hurbil izatea, gero elgar hunkitzea, *egunsentia* deitzen dutana, gero hunkitze edo elgar-ezagutzatik sortzen den zerbait sortzen duk, barnean beti, eta azkenik sortu dena argirat ateratzen duk eta bere bidetik zoak». Hori jakinik, ohartzen da Tittoren lanak usu launaka antolatuak direla, eta maiz zati bakoitzak urrats bat idurikatzen duela (hurbiltze, egunsentia, sortzea, urruntzea). Batzuetan ere, urrats bakar bat erakusten du lanaldi batean. Hala nola, artistaren erranetan *Arakustaldian* eta *Jentilharria* izeneko zizelkadurek eremu sakratua mugatzen dute, eta gune huntako erdi-erdian *pyrite* burdin mineralezko lauki ikaragarri ederra ezarri du. Zehazten duen bezala, «mundua hol-hola ikusten diat, eta ene lanetan ikusmoldearen mirailatzea ezinbertzekoa duk».



'Xuxurla' eskultura. P. BASTRES

Artelanaren gutizia nondik datorkion galdetua, hona zer ihardetsi duen: «ustegabetan etorri zaidak, Aldapa ene etxea eraberritzen hasi nintzenean, ene osabarekin. Eskulana maite niala ohartu nintuan. Hortik lekora zurezko ateburutzar bat atsemana nian etxe ondoan, garbitu eta zilatu. Polita atsemana nian, eta ene lehen artelana bilakatu zuan. Ondotik, bertze ernai puska bat eskuratua nian, suak jaten hasia. Andeatua zuan puska kendua nian, eta ohartua nintuan bi maitale idurikatu nitiala, elgarri xuxurlatzen ziotenak. *Xuxurla* izena eman zioat lan huni. Aurkikuntza bezala izan zitzaidan hori. Orduz geroztik, horren inguruan marrazten eta marrazten hasia nintuan, zurik hunkitu gabe. Bitxia duk: ene hastepeneko bi lanetan zura landuz hasia nintuan, gogoetarik egin gabe. Ondotik infrentzu: ideia gogorat datorkiat, gero marratzen diat jakiteko itxura ideiari leiala zaion, eta azkenik zura edo burdinaren lantzeari lotzen natzaiok».

Olentzeroko kalejiran jotzeko gonbidapena musikariei Beran

TTIPI-TTAPA BERA

Joan den urtean bezala, olentzeroren emanaldia parte-hartzaileagoa eta osatuagoa egiteko asmoz, Berako Udalak musikariei dei egin die Olentzero herrikoiaren kalejiran parte hartzera.

Akordeoia, txistua, flauta, klarinetea, saxoa, tronpeta, tronboia, bonbardinoa, tuba eta perkusioa jotzen duten musikariak nahi dituzte eta urriaren 31 arte izanen dute izena emateko aukera, Kultur Etxeko 948 631222 telefonoan.

Kalejiran, *Segurako alborada*, *Atiarno* eta *Ikusi mendizaleak* abestiak joko dituzte. Entsaio eguna abenduaren 11n, 19:00etan izanen dute Musika Eskolan.

Gaita eta atabala tailerrak eskainiko dituzte aurtengoan ere Beran

TTIPI-TTAPA BERA

Berako Udalak eta Berako Kultur Batzordeak antolatuta, gaita eta atabala tailerrak eskainiko dituzte azarotik ekainera larunbatero 12:30etik 13:30era Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskolan. Izena emateko epea urriaren 30era bitarte zabalik dago eta 100 euro ordaindu behar da.

Ikastaro bakoitzeko guttieneko kopurua bortz lagunekoa da. Izena emateko 948 012 012 telefonora deitu behar da, astelehenetik ortziralera 08:00etatik 19:00etara. Argibide gehiago Berako Kultur Etxean, 948 631222 telefonora deituz edo *kultura@bera.eus* helbide elektronikora idatziz.

Ongi Izaite Eguna antolatzen ari den lantaldea. MAIALEN ALFARO

Ongi Izaite Eguna azaroaren 17an eginen dute

Goizez eta arratsaldez Sarako terapeuta eta praktikanteak ezagutzeko aukera izanen da Lur Berri gelan

TTIPI-TTAPA

Aurten hirugarren aldikoz eginen da Ongi Izaite Eguna. Azaroaren 17an iraganen da eta aitzineko aldietan bezala, herriko terapeuta eta praktikanteak ezagutzeko aukera izanen dute 09:00etatik 19:00etara Lur Berri gelara hurbiltzen direnek. Erakusmahaiez gain, tailerrak eta hitzaldiak ere izanen dira egun osoan. Sartzea euro bat ordaindu beharko da eta haurrek urririk izanen dute.

10:00etan auto-masaje tailerra eskainiko dute eta 10:30ean helduentzako yoga saioa hasiko da. 11:30ean haurren txanda izanen da eta gorputzaren iratzartzeaz ikasteko aukera izanen dute. 12:00etan harri eta Tibeteko bolatxoekin energia orekatzen ikasteko tailerra eskainiko dute. Ordu erdi berantago, oinazpiko masajea egiteko hastapeneko tailerra emanen dute.

14:30ean haur eta burasoek sofrologia egiteko aukera izanen dute eta ordubete geroago litoterapiari buruzko solasaldia emanen dute. 16:00etan Chi Gong ezagutzeko aukera izanen da eta 17:00etan haurrek yoga egiten ahalko dute.

Gripearen kontrako txertoak azaroaren 7an Herriko Etxean

Gripearen kontrako txertoak emateko hitzorduaren berri eman du Herriko Kontseiluak ohar bidez. Heldu den ortzegunean, azaroak 7, iraganen da, Herriko Etxean. 10:00etatik 11:00etara izanen da eta bakoitza bere txertoekin joateko eskatu dute.

Atsulai eta Ortzi abesbatzen emanaldia azaroan

Atsulai eta Ortzi taldeek euskal kanten emanaldia eskainiko dute azaroaren 8an elizan. Erlauntza abesbatzak antolatu du kantaldia eta 21:00etan hasiko da. Sartzea hamar euro ordaindu beharko da eta 15 urtez beheitikoek urririk izanen dute.

Eguberrietako egutegia prestatu du ikastolak aurten lehenbiziko aldiz

TTIPI-TTAPA

Aurten lehen aldikoz, Eguberrietako egutegia egin du Olhain ikastolak. Egutegi berezia da, Olentzero eta Mari Domingi etorri bitartean egunak kontatzeko manera eskaintzen duena. Abenduaren 1etik 24ra, egunero, egutegiko leiho bat irekiz barneko txokolatea jateko aukera izanen dute egutegia eskuratzen dutenek.

Azaroaren 8tik goiti paratuko dute salgai. Herrian, Baketun, Herriko Etxeko Edantegian, Plekan, Urtxolan eta harategian erosten ahalko da hamar euroren truke, baita Baionako Pyrénées ostatuan ere. E-mailez ere egin daiteke eskera (*olhain.eguberri@gmail.com*) eta eskatutako txokora hurbilduko dute. Kopuru mugatua denez, kasu emateko adierazi dute ikastolatik.

Helburu bikoitza

Egutegi honekin, dirua biltzeaz gain, «euskal kultura etxeetara sartzea» nahi dute ikastolakoek, eta horregatik, «Olentzero eta Mari Domingirekin apaindu dugu egutegia».

4koplasara taldeko Laida, Ellande, Julene eta Amets. BERTSULARIEN LAGUNAK

Ortzirale eta larunbat honetan Taldekako Xilaba txapelketako finalerdiak

TTIPI-TTAPA

Finalerdien atarian da Taldekako Xilaba Txapelketa. Ligaxka finitu da eta parte hartu duten bederatzi taldek lortu dute ortzirale eta larunbatean, azaroak 1 eta 2, jokatuko diren finalerdietara sailkatzea.

Ortziralean, azaroak 1, Baionako Zizpa gaztetxean jokatuko da lehenbiziko finalerdia, 19:00etan. Saratarren 4koplasara –Ellande Alfaro, Amets Arzallus, Julene Etxeberri eta Laida Etxeberriren taldea– eta Hasta La 2Toria –Elixabet Etxandi, Lur Renteria, Maddi Sarasua, Hodei Renteria eta Leire Laskarai– taldeak ariko dira. Biharamunean, azaroak 2, Muskildiko Posonpesenea gelan jokatuko da bigarren eta azken finalerdia. Afalondoko saioan, 19:00etan hasita, Urruñago –Odei Barroso, Kerman Diaz, Iker Altuna eta Ortzi Idoate– eta Ez Otoi Pentsa – Maddi Ane Txoperena (Lesaka-Hendaia), Miren Artetxe, Josu Txoperena (Lesaka-Hendaia) eta Gorka Artetxe– taldeak ariko dira.

Bi saio horietan erabakiko da zein izanen diren azaroaren 16an Izturitzen jokatuko den finalean kantatuko dutenak.

Ander Erice suertatu zen garaile 22 kilometroko lasterketan. Eskuinean, bezperan egin zen gau-lasterketako podioa. UTZITAKO ARGAZKIAK

Hodei Lujanbio nagusi Urdazubiko konbinatuan

9,5 kilometroko gau-lasterketan nahiz 22 kilometrokoan bigarren izan zen korrikalari goizuetarra

TTIPI-TTAPA URDAZUBI

Hitzordu bikoitza eta berezia izan dute aurten Urdazubin, Kontrabandisten Lasterketaren harira, herriko gazteriak, udalak eta *sport-madness.com* webguneak antolatua. Urriaren 19an, 9,5 kilometroko gaueko lasterketan Jokin Arretxea eta Maria Loizu (Trail Run 19) nagusitu ziren eta urriaren 20ko 22 kilometroko proban, Ander Erice (Sakana Bizirik) eta Alizia Olazabal (Eskoriatza). Bi proben konbinatuan, Intxixutrail taldeko Hodei Lujanbio goizuetarra nagusitu zen gizonezkoen artean, bietan bigarren izan baitzen. Emakumezkoetan, Maria Loizu, laburrean garaile eta luzean hirugarren izan baitzen.

Hontza eta arranoa

Irteerak ere bereziak izan ziren, gaueko lasterketan hontz baten hegaldiak eta 22 kilometrokoan arrano batenak eman baitzien hasiera lasterketei. Gaueko lasterketan bizkorrena Jokin Arretxea izan zen (52.22), Hodei Lujanbio goizuetarra bigarren (52.55) eta Manttaleko Asier Apezetxea aranztarra hirugarren (53.13). Emakumezkoetan Maria Loizu izan zen bizkorrena (1.07.07), Manttaleko Jone Zelaieta (1.08.09) eta Ainhoa Etxegarai (1.10.32) beratarren aitzinetik.

Biharamunean egindako 22 kilometroko lasterketan, berriz, Sakana Bizirik taldeko Ander Erice izan zen bizkorrena (1.53.42). Bezperan bezala, bigarren izan zen Hodei Lujanbio goizuetarra (1.56.26) eta Lagunak taldeko Aritz Arteta hirugarren (2.00.33). Emakumezkoetan, Eskoriatzako Alizia Olazabal izan zen bizkorrena (2.17.59), CVCko Maite Karrika (2.25.25) eta bezperan irabazle izan zen Maria Loizuren aitzinetik (2.34.41).

Nafar Kronoeskaladetan azkena egin dute Ibardinen urriaren 19an

TTIPI-TTAPA BERA

Presoen eskubideen alde antolatutako Nafar Kronoeskaladetan azkenak Ibardinen izan zuen helmuga urriaren 19an.Urruñatik abiatuta, 38 txirrindulari elkartu ziren eta eguraldia lagun izan zuten azkenean. Txapelketa guztian 85 parte-hartzaile izan dira. 50 punturekin Adèle Kerbaol izan da txapelketaren garaile, Jean Marc Eyheraberryk *handbike* batekin egindako igoera guztiei esker bigarren postua egin du 40 punturekin eta Didier Zago Biarnokoak hirugarren postua egin du, hau ere 40 punturekin.

Adèle, Didier eta Jean-Marc txapelketako errege eta erregin izendatu dituzte eta Ibardinekoak aldiz, Bordeleko Jean Lebroton Karlos III.a Nafarrokoa izendatu zuten eta, bertze alde batetik, Larraitz Esnaola gipuzkoarra Joana III.a Albretekoa.

Sari-banaketa baino lehen hitz hartze ttiki bat egin zuten txirrindulari guztiei haien borondatea eskertuz eta txapelketa hau zergatik abiatu duten oroitaraziz: «Sei hilabete hauetan frantziar estatuan bortz preso mutil hurbildu dituzte eta bi geratzen dira Euskal Herritik urrun. Nesketan, aldiz, momentuko ez da konponbiderik aurkitu. Espainiako Estatuan ez dute bat mugitu ere azken sei hilabete hauetan. Eta bukatzeko ez ditugu ahantzi berriki Lorentxa Beyrie preso gaixoari eta *Xistor* Haramburu senpertarrari eskatutako baldintzapeko askatasuna nola ukatu dizkieten».

Finalean izan ziren txirrindulariak, Ibardingo kaxkoan.. GEORGES SOUBELET

Bizkaitarrak txapeldun eta nafarrak txapeldunorde Iruñean. Ondoko argazkian, Maika Ariztegi txingekin. BASQUE SPORTS

Bizkaia gailendu zaio Nafarroari 5kirol txapelketan

Urriaren 19an Astondoak eta Zelai III.ak, Maika Ariztegik eta Finolek baino 49 segundo guttiago behar izan zituzten

TTIPI-TTAPA

Irati Astondoak eta Karmele Gisasola Zelai III.ak osatutako bikoteak 5Kirol emakumeen pentatloi berritzailaren palmaresa inauguratu du. Basque Sport-ek antolatu du lehiaketa hau, Eroskiren 50.urteurreneko ospakizunen barrenean. Bi kirolari bizkaitarrek txapela lortu zuten urriaren 19an Iruñeko Takoneran jokatutako lehian, Iturengo Maika Ariztegi eta Iruñeko Virginia Finol nafarrak garaitu ondoren. Bizkaitarrek 38 minutu, 20 segundo eta 89 ehunen behar izan zituzten lanak egiteko, nafarrek baino 49 segundo guttiago.

Txapeldunak lehenengo probatik nagusi izan ziren. 62 kilo eta erdiko harri borobilari 45 jasoaldi eta metro bateko enborra moztu ondotik abantaila lortu zuten bizkaitarrek. Txanda librean 25 kiloko txingekin 10 plaza osatu eta inguderekin ehun altxaldi eman ondotik ere, bizkaitarrak azken probara aitzinetik heldu ziren. Baina arpanaren proba Zelai III.ak eta Astondoak baliogabetzat emandako mozketa batekin hasi zuten eta nafarrek aurreratu zituzten. Emozioz betetako azken minutuetan bikote bizkaitarrak erreakzioa izan zuen, ordea. Maika Ariztegi eta Virginia Finolek trontzarekin hasiberriak dira eta ezin izan zuten irabazi.

Iker Salaberriak ostiralean debuta eginen du Tolosan

Iker Salaberria aurrelari goizuetarrak Aspe enpresarekin debuta eginen du profesionaletan azaroaren 1ean Tolosako Beotibarren. Goi-mailako partida izanen du hasteko: Beñat Rezusta atzelari duela, Danel Elezkano eta Iñigo Bikuñaren kontra ariko da.

Malerrekako III. Rallysprinta azaroaren 9an

Malerrekako III. Rallysprinta jokatuko da azaroaren 9an Donezteben, Nafarroako Rally Txapelketarako eta Nafarroako Junior Rally Txapelketarako baliagarria. Nafarroako Federazioak antolatutako auto-lasterketa da, Donezteko Udalak eta Malerreka Motosport taldeak lagunduta. Donezteb-Beintza-Labaien--Saldias-Orokieta ibilbidea eginen dute. 11:00etan moztuko dute errepidea eta lehenbiziko txanda 12:10ean abiatuko da. Lehenbizikoa akitzerakoan abiatuko da bigarrena.

IBON ERRAZU

Irazu txapeldun Euskadiko 2. mailan

Euskal Herriko 2. mailako aizkolarien txapelketa jokatu zen urriaren 19an Altsasun, eta Jon Irazuk lortu zuen txapela buruan jartzea. Hiru segundoko aldera atera zion Juanjo Lopezi eta biak igoko dira lehen mailara. Zigako Joxean Etxeberria laugarren izan zen, Eloy Corcheroren gibeletik.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Nafarroako sokatira txapelkeko azkenak

Arbizun eta Elizondon emakumeen 520 kilo eta gizasemeen 600 kiloko txapelketak erabaki ondotik, azaroaren 2an eta 9an Leitzan eta Lesakan jokatuko dituzte txapelketa mistoa eta 480 kiloko emakumeena. Arbizuko lehenbiziko tiraldietan Beti Gazteko neskak eta mutilak nagusitu ziren (argazkietan).

AGENDA

URRIAK 31 - AZAROAK 14

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

HITZALDIAK

ELGORRIAGA-URROZ-DONEZTEBE
'Emakumeak plazara'
Azaroaren 2an, 9an eta 22an, hurrenez hurren.

DONEZTEBE
Margaret Atwood idazleari buruz solasaldia
Liburutegian, azaroaren 8an, 18:00etan.

Euskaraldiaren aurkezpena
Mankomunitatearen egoitzan, azaroaren 21ean, 19:00etan.

ELIZONDO
Euskaraldiaren aurkezpena eta formazio-saioa
Arizkunenean, azaroaren 6an, 19:00etan.

'Klima larrialdia eta krisi ekosoziala. Etorkizuneko alternatibak'
Arizkunenean, azaroaren 9an, 12:00etan.

'Euskara eta feminismoa genealogiatik egungo erronketara'
Saioa Iraola izanen da hizlari.
Gaztetxean, azaroaren 15ean, 19:00etan.

GOIZUETA
'Azukrearen gazi-gozoak'
Eskolako jangelan, azaroaren 15ean, 19:00etan.

KIROLAK

LEITZA
Sokatira jaialdia
Azaroaren 2an, 17:00etan.

DONEZTEBE
III. Rallysprinta
Azaroaren 9an. Lehendabiziko txanda 12:10ean abiatuko da.

ARTXIBOKOA

BERA 'Haize gorri batek' diska
Diskaren aurkezpena eta kontzertua.
Kultur etxean, azaroaren 9an, larunbatean, 19:00etan.

DANTZAK

ELIZONDO
Muxikoak, jotak, larrain-dantza
Plazan, azaroaren 10ean, 12:30ean.

IKUSKIZUNAK

ELIZONDO
'Landa begiradak'
Arizkunenean, azaroaren 8an, 19:30ean.

BERA
'Tabernaria'
Katakun, azaroaren 10ean, 18:00etan.

'Manifestu bat'
Bidaxkan, azaroaren 17an, 18:00etan.

'Bakean dagoenari bakean utzi'
Goxune kafetegian, azaroaren 24an, 18:00etan.

TAILERRAK

ELIZONDO
Familiendako plastika lantegia
Arizkunenean, azaroaren 2an, 17:30etik 19:00etara.

Bideo-edizio lantegia
Lanbide Eskolan, azaroaren 8an (17:00etatik 20:00etara) eta 9an (10:00etatik 13:00etara).

LEKAROZ
Sukaldaritza tailerra
Belen Urrutiaren eskutik.
Azaroaren 12an, 19an eta 26an, 18:00etatik 20:00etara.

BERA
Robotika ikastaro-lantegia
Beralandetan, hilaren 7an eta 14an, 17:00etatik 20:00etara.

GOIZUETA
'Berrerabiltze, berreskuratze eta zaharberritze tailer irekia'
Eskolako jangelan, azaroaren 8an, 18:00etatik 20:00etara.

DONEZTEBE
Tabakoa uzteko tailerra
Osasun etxean, abenduaren 9ra arte, astelehenetan, 17:30etik 19:00etara.

KONTZERTUAK

DONEZTEBE
Vocal Group Era abesbatza
Elizan, azaroaren 3an, 19:00etan.

BERA
'Haize gorri batek' diska
Kultur etxean, azaroaren 9an, 19:00etan.

ELIZONDO
Kilema
Arizkunenean, azaroaren 3an, 19:00etan.

Sukai taldea
Arizkunenean, azaroaren 10ean, 19:00etan.

Artantxuriketan
Arizkunenean, azaroaren 17an, 19:00etan.

DONAMARIA
Malerreka Kantuz
Plazatik abiatuta, azaroaren 2an, 12:00etan.

LEHIAKETAK

ELIZONDO
Aire libreko pintura lehiaketa
Azaroaren 3an.

ERAKUSKETAK

BERA
Aitziber Orkolagaren 'Plaketak' argazki-erakusketa
Abenduaren 29ra arte, astebururo, 16:00etatik 20:00etara.

ENERITZ IRAOLA

ARANO-GOIZUETA-LEITZA **Berrerabiltze eta zaharberritze tailerra**

Aranon urriaren 31n, 18:00etan, Maisuenean; Goizuetan azaroaren 8an, 18:00etan, eskolan; eta Leitzan 14an, 11:00etan, eskolan.

OIEREGI
'Moldaera: klima aldaketaren aurkako beste borroka'

Bertiz Natur Parkean, azaroaren 3ra arte, 10:30etik 13:30era eta 16:00etatik 17:00etara.

ELIZONDO
Pintura-erakusketa

Arizkunenean, azaroaren 11tik 24ra.

IPUIN-KONTAKETAK

URROZ-LEGASA-DONEZTEBE
'Konta eta kanta'

Azaroaren 2an, 8an eta 24an, hurrenez hurren.

OSPAKIZUNAK

ARANTZA
Baserritarren Eguna

Azaroaren 1ean.

GOIZUETA
Jubilatuen eguna

Azaroaren 3an.

DONEZTEBE
Bertso-afaria

Azaroaren 30ean.

FERIAK

DONEZTEBE
Feriak

Azaroaren 15ean. Xehetasunak 21-25. orrialdeetan.

LESAKA
Feriak

Azaroaren 20an eta 21ean.

LEITZA
Leitza eta Aresoko ekoizleen azoka

Azaroaren 17an. Eguraldi ona bada plazan, bestela Amazabal pilotalekuan.

BESTAK

AURTITZ
Herriko bestak

Azaroaren 8tik 11ra. Xehetasunak 26. orrialdean.

Nire aukera

«Arantzazu euskararen eta euskal kulturaren gordailu izan da»

MIREN MINDEGIA PETRIRENA

Lanbidez kazetaria eta Nabarralde Fundazioko komunikazio-arduraduna da Miren Mindegia (Elizondo, 1985). 2015ean hasi zen Nabarralden lanean, baina «lehendik ere» ezaguna zuen Fundazioa, «Nafarroako historia ezagutarazteko egin duen dibulgazio-lanagatik». Gaur egun, dozena bat lagunek lan egiten dute Fundazioan, guztiek helmuga berera begira: «gure historia euskaldunon ikuspegitik kontatzea». Helburu hori lortze aldera «alde betetik, liburuak eta ikus-entzunezkoak argitaratzen ditugu; bertzetik, ikastaroak eskaintzen ditugu; eta azkenik, jardunaldiak egiten ditugu». Azken aldian *Arantzazu, harriz herri* dokumentalarekin aritu dira: «otsail-martxo inguruan hasi ginen lehenbiziko bilerekin, taldea antolatu, Arantzazuko jendearekin bildu, mezua josi…». Ideia, lehendik ere, bueltaka zerabilten: «memoria lekuen kontzeptua, historiako pasarteak gordetzen dituzten lekuak, lantzen ari ginen». Horrez gain, «Oteizaren eskulturak Arantzazuko atarian jarri zirenetik mende erdia betetzen zenez», hori aukeratu zuten. Bertze hainbat faktoreri begira ere, hautaketa ona zelakoan zeuden: «Arantzazu gure historian toki garrantzitsua izan da eta historia bizia da. Izan ere, bertan dauden fraideek (tartean elkarrizketatu dugun Peio Zabalak) bertako momentuak bizi dituzte». Arantzazuren bi oinarri nagusiak ere ageriko egin ditu Mindegiak: «alde batetik, artean egindako erreforma iraultzailea izan zen. Izan ere, arkitektura erlijiosotik aldendu eta herria identifikatua sentitzea izan zuten helburu; eta bertzetik, euskara eta euskal kultura ia-ia debekatua zegoen garaian euskararekiko erakutsi zuten konpromisoa izugarria izan zen». Egindako lanaren aitortza jaso zuten irailaren 26an: «Hernanin aurkeztu genuen eta 100 lagunetik goiti bildu ziren, harrera arras ona izan zen. Hernanitik Donostiara eta Oñatira eraman dute; eta abenduan Durangon ikusaraziko dute. Tartean bertze geldialdiren bat izanen dute eta adierazi digunez, «Nafarroan ere ikusarazi nahi genuke, Iruñean eta Baztan-Bidasoa aldean». Bien bitartean, USB formatuan salgai paratu dute, online eta liburu-dendetan».

ZERBITZUAK

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

ERRENTAN EMATEKO

BERA. 90 m²ko duplexa errentan emateko. Bi logela, bi bainugela, sukaldea, egongela eta garajea. Oso argitsua. ☎637 91 51 58 / 630 45 73 47.

ERRENTAN HARTZEKO

BAZTAN. Pisua, etxea edo logela errentan hartu nahi dute. ☎606 91 77 49.

BERAN edo INGURUAN pisua errentan hartu nahi dute, logela batekoa edo bikoa. ☎680 78 61 82.

SALGAI

BERA. Etxea salgai. 3.500m²ko partzelarekin. ☎616 24 35 30.

GARAJEAK/LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO

DONEZTEBE. Bixen ostatua errentan emateko. ☎647 82 31 61.

BERTZELAKOAK

BERA. Jubilazioagatik bazarra traspasatzeko. 11 urtez funtzionamenduan. Deitu edo idatzi. ☎652 70 55 56 / *firibarren.bera@gmail.com*.

SALGAI

BERA. Zurgindegia salgai, dena muntatua, makinariarekin. ☎648 26 56 63.

LURRAK/ORUBEAK

SALGAI

OIZ. 10.783,50 m²ko lurra salgai. Errepide ondoan. ☎628 31 60 81.

LANA

ESKAINTZAK

Egunero, lanaldi osoan, **saltzailea eta kutxazain** aritzeko langile bila. Ezinbertzekoa frantsesez jakitea. Bidali curriculuma: *beolaetxea@gmail.com*.

IBARDIN. Jatetxe batean laguntzailea behar dute egunero lan egiteko. Bidali curriculuma: *txokoberri@hotmail.com*.

SUNBILLA. Ariztigain kanpinean sukaldaria eta zerbitzaria behar dituzte. ☎948 45 05 40 / 660 79 82 49.

BERA. Auzoa jatetxean etxez etxeko banatzaileak behar dituzte. ☎657 47 20 20 (whatsapp).

ESKARIAK

Emakumezkoa lan bila. Adinduak zaintzen esperientzia. Orduka edo interna aritzeko prest. ☎644 51 33 79.

ELIZONDO inguruan arratsaldetan lan egiteko prest; ostalaritzan, zaintzan edo garbitasunean esperientzia duena. ☎632 84 85 72.

Esperientziadun emakumea lan bila. Adinduak zaintzen eta garbiketan esperientzia duena. Orduka edo interna moduan aritzeko prest. ☎631 80 86 33.

Obratako lanetan eta pertsona adinduak zaintzen esperientzia duen gizonezkoa lan bila. Edozein lanetara egokitzeko prest. ☎632 73 25 42.

ANIMALIAK

OPARITZEKO

Artzain txakurrak opari. Arra eta emea. ☎620 13 57 21 / 628 68 28 73.

Arratoi zakurra opari. ☎646 29 85 69.

MOTORRAK

SALGAI

Dacia Logan Laureate, 1.6 MPI autoa salgai, 2005ekoa, motorra gasolina, 133.000 kilometro, IAT-ITV pasatu berria eta korrea, ur bonba, olioa... aldatuak. Beti garajean egondakoa. Jabe bakarrekoa. Prezioa: 1.350 euro. ☎687 83 28 44 / 617 80 46 51.

Peugeot 306 1.9 autoa salgai 191.000 km. Diesela. 1.500 euro. ☎679 79 47 50.

DENETARIK

SALGAI

LEITZA. Ate korredera baten egitura salgai. Estreinatu gabea. Prezio onean. ☎619 61 48 96 / 660 85 62 46.

BH abdominalen taula, barra eta pesak eta mankuernak salgai. Hainbat posizio aukeran, bizepsak, abdominalak, koadrizepsak, sorbaldak, femorala... lantzeko. Ia erabili gabeak. ☎600 67 04 95.

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 63 54 58 — www.erran.eus

744 48 43 61 — info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da
ARGAZKIAREKIN jarri nahi izanez gero **12 €**
Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan

Ttipi-Ttapak ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg kanal

• Extra	4,14
• 1.koa	4,01
• 2.koa	3,87

Urruxak: €/kg kanal

• Extra	4,25
• 1.koa	4,11
• 2.koa	3,97

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttikiak
• (15 egun ingurukoak).
Aretze mestizoak

• Urruxak	170,00
• Idixkoak	200,00

Aretze nabarrak

• Urruxak:	150,00
• Idixkoak	170,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

• Sortu berriak:	3,32/3,42
• Zaldi-behorrak	1,93/2,10

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

• 6-8 kilokoak:	8,30/8,90
• 8-10 kilokoak:	7,00/7,50

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 55 €
Zerri gizena 1,440 €
Zerramak 0,740€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua (urriaren 11tik 18ra bitarteko prezioak)

Arraun-makina estatikoa salgai, BH R350. 5 programa. Erabilera erdi-profesionala. Ia erabili gabe. Erabiltzen ez delako salgai. ☎600 67 04 95.



Gaztainondo zuraz egindako **egongelako altzaria** salgai. Luzera 220 cm, zabalera 260 cm eta sakonera 55 cm. Prezioa: 1.500 euro negoziagarriak. Hagitz egoera onean. ☎685 76 44 00.

HERIOTZAK

- **Marie Pierre Dutournier**, Sarakoa, urriaren 2an, 67 urte zituela.
- **Esther Iñarga Hermigarate**, Berakoa, urriaren 9an, 76 urte zituela.
- **Norberto Migeltorena Barazabal**, Erratzukoa, urriaren 10ean.
- **Gloria Iturralde Etxarte**, Berroetakoa, urriaren 10ean, 84 urte zituela.
- **Fernando Jose Garaikoetxea Etxenike**, Lekarozkoa, urriaren 11n, 67 urte zituela.
- **Mª Isabel Irazoki Zubieta**, Etxalarkoa, urriaren 13an, 80 urte zituela.
- **Matilde Arburua Arribillaga**, Etxalarkoa, urriaren 13an, 88 urte zituela..
- **Carmen Mortalena Salaburu**, Erratzukoa, urriaren 14an, 75 urte zituela.
- **Antoine Astigarraga**, Sarakoa, urriaren 14an, 85 urte zituela.
- **Patxi Irazoki Arregi**, Berakoa, urriaren 16an, 67 urte zituela.
- **Mª Luisa Almandoz Mitxelena**, Lesakakoa, urriaren 16an, 90 urte zituela.
- **Visitacion Sansiñena Telletxea**, Berakoa, urriaren 20an, 89 urte zituela.
- **Juan Felix Altzuiet Etxeberria**, Urdazubikoa, urriaren 21ean, 78 urte zituela.

EZKONTZAK

- **Anthony Bascou** eta **Maialen Saint-Martin** irailaren 28an Saran.
- **Janire Rekalde Villa** eta **Arkaitz Elizalde Telletxea**, Barakaldokoa eta Zubietakoa, urriaren 11n Zubietan.
- **Santiago Sergio Bayascas** eta **Vanesa Leon**, Iruñekoak urriaren 12an Igantzin.
- **Mikel Oskariz Telletxea** eta **Sonia Gainza Goienetxe**,Lekarozkoa eta Etxalarkoa, urriaren 19an Etxalarren.

SORTZEAK

- **Egoi Razkin Otermin**, Leitzakoa, ekainaren 15ean.
- **Laia Blanco**, Sarakoa, irailaren 11n.
- **Amaia Perugorria**, Sarakoa irailaren 21ean.
- **Sohaib Hamidi**, Iturengoa, urriaren 6an.
- **Ane Erasun Antxorena**, Doneztebekoa, urriaren 13an.
- **Enea Mindegia Mortalena**, Arraiozkoa, urriaren 14an.
- **Adur Apezetxea Goñi**, Arantzakoa, urriaren 16an.

Pablo Irazoki Olaizola urdazubiarrak urriaren 10ean 15 urte bete ditu.
Segi holaxe guapeton eta muxu asko Pinaki-Irazoki familiaren partetik.

Sunbillako **Jone Bertiz Ariztegi**k azaroaren 1ean 6 urte beteko ditu! Zorionak! Sunbilla eta Etxalarko familia eta bereziki Ekiñe, Joanes, Urki eta Haritz.

Berako **Xabat Mikelperizena Portu**k 8 urte beteko ditu azaroaren 2an. Aunitz urtez baserritarra!!! Muxu pila bat familiaren partetik.

Lesakako **Ainhoa Goienetxe Zubieta**k sei urte beteko ditu azaroaren 15ean. Aunitz urtez etxeko ttikienari eta ongi-ongi pasa eguna!

Zorionak hirukote! Izeba **Irene**k urriaren 16an berrogeita piko... eta **Adur** eta **Oinatz**ek urriaren 22an 6 urte bete dituzte. Muxu pottolo bat familiaren partetik!

Ioritz Tapiak urriaren 22an eta **Oihane Almandoz**ek azaroaren 2an urteak beteko dituzte. Merendu goxoa prestatu!! Zorionak familia guztiaren partetik.

Aunitz urtez **Amaia**! Berandu baina seguru! Eta gainera, aurten eguna asmatu dugu! Kar, kar, kar... Aunitz urtez urriaren 24ko partez. Muxu bat!

Aunitz urtez **Arantza**! Oñatiar beratartuak urteak bete zituen urriaren 18an. Berandu bada ere, aunitz urtez eta muxu bat lankideen partetik!

Aunitz urtez!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak!

Internetez
http://erran.eus/zorionagurrak helbidean sartu. Egun berean edo hurrengo lanegunean argitaratuko da webgunean, baita hurrengo aldizkarian ere.

Bulegoan eta postaz
Etor zaitez Ttipi-Ttaparen bulegora edo bidali argazkia eta testua gutun-azal batean: Koskontako bidea, 7-1-31770 LESAKA.

Ordaintzeko:
(1) Bulegoan, dirutan (5 edo 10 €)
(2) Hegoaldetik postaz 0,55 €ko 10 edo 20 seilu.
(3) Iparraldetik postaz 5 edo 10 €ko txekea.
(4) *erran.eus*en bitartez.

URTEURRENA

Juliana MUTUBERRIA INDAKOETXEA

2018ko azaroaren 19an hil zen
I. urteurrena

Urtebete joan da
Zu gabe Juliana
Ama zoragarri, amatxi paregabe
Zara zu izana
Gure arteko tartea xamurtuz
Maiz zatoz gugana
Zuk egindako bidea
Jarraitzea da orain gure lana.

ZURE FAMILIA

URTEURRENA

Jose Angel ALZUGUREN PERURENA *Kotto*

Beran, 1966/03/03 - Sorian, 2005/10/31
XIV. urteurrena

Izan zirelako gara
Garelako izanen dira.
Guretzat eta Euskal Herriarentzat
betiko argia.

ETXEKOAK

OROIGARRIA

Mª Carmen UGARTE GORTARI

Oronozen hil zen 2019ko urriaren 2an,
95 urterekin

Etxeko goxotasuna eta lasaitasuna zinen
eta horren falta sumatzen dugun arren,
eskerrik asko zure denbora eskaini
eta hainbeste erakustearren.

Maite zaitugu!

ZURE FAMILIA

URTEURRENA

Pakita LUSARRETA ITURRI

Leitzan, 2015eko azaroaren 13an
IV. urteurrena

Gezurre dirudi joan zarela,
oroitzapen onak utzi dizkiguzu
eta gauze ederrak erakutsi.
Beti izanen zaitugu gure ondoan,
adiorik ez, gero arte baizik.

ETXEKOAK

IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

BEILATOKIAK
ELIZONDON, BERAN ETA DONEZTEBEN
Zerbitzuak Baztanen, Bortzirietan,
Bertizaranan eta Malerrekan
Hurbiltasuna eta begirunea
T. 948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

URTEURRENA

Manuel ETXEBESTE LEGASA

Lesakan, 1928/10/14 - 2018/11/19
I. urteurrena

Zure oroimenak
indartzen gaitu.
Beti gurekin.

ZURE FAMILIA

Bere aldeko meza azaroaren 17an eginen da Lesakako elizan, 11:30ean.

BB
BAZTAN BIDASOA
Ehorzketa Zerbitzuak

BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: BERAn San Jose Beilatokian
MALERREKA: DONEZTEBEn Aparan ind. 1-3
web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere
24 ORDU 365 EGUN | 948 48 95 50
info@funerariabaztanbidasoa.com
Betiko taldea zu laguntzeko

IRACHE
tanatorioak
Betidanik

BERA (Kanttonberri, 14) | DONEZTEBE (Ameztia, 13)
ELIZONDO (Santiago, 52) | LESAKA (Zarandia, 18)
ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara
948 63 74 04 / 948 19 70 70

ESKELAK JARTZEKO edo OROIGARRIAK EGITEKO:
948 63 54 58 edo *info@ttipi.eus*

KONTATU KONTUAK

FERNANDO ANBUSTEGI

LABIAGA IKASTOLA

Baztan Ikastola eta Labiaga Ikastolako ordezkariak Nafarroako Oinezeko erronkan. Eskualdeko gazteek ez zuten hutsik egin urriaren 20an Tuteran egin zen Nafarroa Oinezen jokatu zen Erronka proban. Baztan Ikastolako DBHko ikasleak –ezkerrean– eta Berako Labiaga Ikastolakoak –eskuinean– abilezia, indarra eta abiadura eta buruargitasuna neurtzeko hainbat probatan aritu ziren.

Moreno-Torrobari omenaldia. Emanaldi berezia eskaini zuen urriaren 11n Doneztebeko Mendi Abesbatzak, Raquel Del Val pianojolearekin. Hitzordu berean, Nafarroako Abesbatzen Elkarteak urrezko domina eman zion Federiko Moreno-Torroba Larreglari.

Berako Udala herritarrekin biltzen. Irailaz geroztik, herritarren parte-hartzea bultzatu eta auzotarren beharrak zein diren zuzenean jakiteko, udal ordezkariak auzoz auzo batzarrak egiten ari dira –argazkian Altzateko bizilagunekin–. Ortzegun honetan, urriak 31, Bidasoko auzotarrekin bilduko dira 18:30ean Xubi-Zabalen; Foru Plaza eta Iparkarrikakoekin 19:15ean Ansonean egin dute hitzordua eta Legarbidekoekin plazan 20:00etan. Azaroaren 7an Suspela eta Suspel ttikikoekin elkartuko dira, lehenbizikoekin Garatxekobordan 18:30ean eta bigarrenekin ur deposituan 19:30ean. Azaroaren 14an Bortziriak auzoan (18:30), Ibaialden (19:15) eta Agerran (20:00) bilduko dira eta azaroaren 21ean Zian (Anguleroan 18:30ean) eta Kaulen (Maritxenean 19:30ean).

Kataluniarrei elkartasuna adieraziz. Espainiako Auzitegi Gorenak Kataluniako buruzagi independentisten aurka egindako epaia salatu eta kataluniarrei elkartasuna adierazteko hainbat elkarretaratze egin ziren joan den astean. Batzuk aipatzearren, urriaren 14an, Leitzan, Elizondon eta Lesakan –argazkian– egin zituzten. Urriaren 16an Aiako Harritik elkartasun keinua egin zieten, eta urriaren 17an Urdazubi-Zugarramurdi eta Baztango herrietako eskoletako langileek elkarretaratzea egin zuten. Urriaren 18an gauza bera egin zuten Lekarozko eta Doneztebeko institutuetako langileek –argazkietan–, baita Leitzako eta Arantzako herritarrek ere.

PLAZAN BAZAN

ARROTZAK

Ibaietan eta erreketan aurkitu beharko ez genituzkeen elementu gehiegi dago paisaia honetan (gomazko ahatez gainera, gutxienez 16). Ikusten al dituzu?



1 .....
2 .....
3 .....
4 .....
5 .....
6 .....
7 .....
8 .....

9 .....
10 .....
11 .....
12 .....
13 .....
14 .....
15 .....
16 .....

Egilea: **Garbine Ubeda (Aiurri)**

INTERNETEN ERE BAI !

http://plazanbazan.eus/

Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak

IRUDI ENGAINAGARRIAK



Hamahiru zati hauetatik zortzi ezkerreko iruditik hartuta daude eta gainerako bostak engainagarriak dira, hau da, arras antzekoak badira ere, ez datoz bat irudi nagusiarekin. Identifika itzazu.

MEZUA

Iruditxo bakoitza dagokion hizkiaz ordeztu eta esaera zahar bat agertuko zaizu.

TATUAJEA



Maripurtzili ikaragarri gustatzen zaizkio tatuajeak.
Hona hemen bere besoa. Egin iezazkiozu tatuajetxo batzuk.

Ttipi Txartelarekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK
-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 **LESAKA**
T **948 63 54 58** | F. 948 63 54 57
info@ttipi.eus | **erran.eus**

www.ttipitxartela.info

744 aleko irabazleak >

Baztan Abentura Park - 2 sarrera
Iñaki Ezkurra Beraza | LEITZA
Zugarramurdiko lezeak - 2 sarrera
Luzio Bazterrika Garziarena | EZKURRA
Donostiako aquariuma - 2 sarrera
Ana Larrui Alaña | ELIZONDO
Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera
Miguel Mari Alzuri Maiz | ARANTZA
Buatxabal - Kamiseta bat
Kristina Domeno Rayd | ARIZKUN
Baztan Escape Room - Sarrerak
Jose Luis Irurtzun Aierza | LESAKA
Wow Park - 2 sarrera
Saioa Diosdado Migeltorena | DONEZTEBE
Wow Park - 2 sarrera
Maria Angeles Iribarren Elorga | URDAZUBI
Ttarttalo - Liburu bat
Txomin Zubilaga Uranga | ARESO
Ttarttalo - Liburu bat
Jose Ignacio Bera Elizalde | ITUREN

ZOZKETAK

2 sarrera

IRRISARRI LAND
www.irrisarriland.com

2 sarrera

LESAKA
www.lesakakoudalkiroldegia.com

2 sarrera

DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA
www.eurekamuseoa.es



2 sarrera helduentzat

ONDDO TA PUNTO
www.onddotapunto.com

Kamiseta bat

ARKUPE
www.arkupegozotegia.com

Lote bat

LIBURUAK

Ahotsak eta itzalak
Ez erran deus

erein
Argitaletxea
www.erein.eus

LA GUNTZAI LEAK

www.baga-biga.eus

www.lesakakoudalkiroldegia.com